

ELKARRIZKETA: TORBEN ROSENORN • ESPERIENTZIA: AKUIKULTURA  
• EKARPENA: HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA IRITSI BERRIEKIN •  
GALDEIDAZUE: PAULO IZTUETA • JOSEBA SARRIONAINDIA

**hh**  
hik hasi

**119**

4 EURO • 2007KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



*GAIA*

**Pedagogia Sistemikoa**  
eskolan erabiltzen

# Irakurtzen eta idazten ikasteko **IRAKURKETA eta IDAZKETA**

## koadernoak



### KOADERNO BERRIAK

- 1** KOADERNOA: E/I/H/L/T/F eta A/K/M/N/Ñ letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Hitzen osaketa
- 2** KOADERNOA: O/U/B/D/G/J/P/R/RR letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Hitzen osaketa
- 3** KOADERNOA: X/Z/S/TX/TZ/TS letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Hotsen bereizketa - Hitzen osaketa
- 4** KOADERNOA: derantzizko silabak: -L/-R/-K/-N. Silaba mistoak eta zuzen bikoitzak: G-L, B-L, T-L, BL-, FL-, KL-, B-R, G-R, M-R, PR-, DR-... Hitzen eta esaldien osaketa
- 5** KOADERNOA: a/o/d/g eta e/l/b/h/f letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Loturak – Hitzen osaketa
- 6** KOADERNOA: i/u/t/p/j/k eta m/n/ñ/r/rr letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Loturak – Hitzen osaketa
- 7** KOADERNOA: x/z/s/tx/tz/ts letren idazketa eta irakurketa. Grafismoa – Norabidea – Proporzioa – Loturak – Hotsen bereizketa - Hitzen osaketa
- 8** KOADERNOA: Alderantzizko silabak: -l/-r/-k/-n – Silaba mistoak eta zuzen bikoitzak: g-l, b-l, t-l, bl-, fl-, kl-, b-r, g-r, m-r, pr-, dr-... Hitzen eta esaldien osaketa


# aurkibidea



**8**  
gaia

## PEDAGOGIA SISTEMIKOA

Pedagogia Sistemikoak eskolako egoerak, gatazkak eta harremanak hobeto ulertzeko balio dezake. Familia Konstelazioak erabil daitezke heziketa arloan. Hori nola egiten den aztertzen da gai honetan.



**16**  
elkarrizketa

## TORBEN ROSENORN

Gero eta gehiago entzuten dira kontzeptu hauek: POPBL, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza... 30 urte daramatzate Danimarkako Aarlborg Unibertsitatean hori lantzen.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## PEDAGOGIA SISTEMIKOA

**16** elkarrizketa

## TORBEN ROSENORN

**24** esperientzia

Akuikultura. Arrain haztegien aldeko apustua

**27** ekarpena

Hizkuntzen irakaskuntza iritsi berriekin

Amelia Barquin, Pilar Hernandez, Joseba Ibarra, Jon Lopez, Ima Ortega, Uri Ruiz, Amelia Sesma eta Teresa Zulaika

**32** galdeidazue

Curriculum proposamenak direla eta, zer bide hartu behar dugu eskoletan? Eta zer gertatuko da hizkuntz ereduaren marko berriarekin?

Paulo Iztueta

**35** berriak

**41** ...goza nazazu gehiago!

Hiztun neurketak: adierazle eta akuilu

Helena Baraibar eta Kristina Boan

**42** Atzeko atetik

Joseba Sarrionandia

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Familia Konstelazioa panpinekin. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-VI-1). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararaten ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala ekaina

## Zer da, bada, curriculumuma? Transmititu nahi den kultura, balioak...



**Herri gisa, egokiago da gure hausnarketatik abiatzea, oinarriak finkatzea eta estatutik eta Europatik datozen irizpideak horren gainean egokitzea.**

Asko hitz egin da beti curriculumari buruz. Michel Foucault-en esanetan, jakintza eta boterea bi arlo desberdin izan arren, erabat loturik azaltzen dira. Boteareak bere pentsaera transmititzeko erabiltzen du curriculumuma.

Azken urte hauetan euskal curriculumari buruzko adierazpenak oso maiz entzun ditugu.

Zer da, bada, curriculumuma? Gure ustez, transmititu nahi den kultura, balioak... finkatzen dit.

Industriaren iraultza egin eta estatuak finkatu zirenean, Frantziak eta Espainiak hizkuntza eta kultura bana hartu zuten beste herrien hizkuntzak eta kulturak alboratuz.

Aro berrian sartzen ari garen honetan (industriaren arotik informatikaren, ezagutzaren... arora), ekonomia mundializatu egin da. Antolaketa berriak estatuak gainditu ditu kontinente mailara pasatuz. Baina, lehenago lepotik burua. Adituen esanetan egungo hizkuntzen % 90 desagertuko omen da munduan.

Non geratzen ari da hainbat milurtetan sortutako eta pilatutako hizkuntzen eta kulturen aberastasuna?

Edozein herrik biziraun nahi badu, bere hausnarketa propioa egin behar du. Eta Euskal Herrian, geurea egitea dagokigu.

Euskal curriculumuma koordinatu horietan kokatu beharko litzatekeela da gure ustea. Eta, zer jendarte mota nahi dugun gure etorkizuneko herriarentzat eta munduarentzat galderari erantzun beharko lioke. Hau da, zer transmititu ondorengo jendarteari. Oinarritzkoa, herritar guztientzat izango dena, denek baitute historiak pilatu duen ondare kulturala eta soziala ezagutzeko eskubidea.

Nafarroan eta EAEn, estatutik ezarritako ildoari jarraituz, bakoitzak bere oinarritzko curriculumuma egin behar du. Handik datorrena egokitzea mugatzen badira, oker goaz.

Herri gisa, egokiago da gure hausnarketatik abiatzea, oinarriak finkatzea

eta estatutik datozen irizpideak horren gainean egokitzea.

Ez dezagun aukera galdu, jar ditzagun lehentasunak. Noiz onartu behar da hemen ondare kulturala eta soziala baduen herri bat badagoela, eta bere etorkizuna prestatzeko eskubidea baduela? Gehiegitan uko egiten zaio errealitateari eta askoren nahi horri.

Edozein azterketa pedagogikok erakusten du ikasleek bizi duten bertakotasunetik abiatzea, komunitate bateko partaide sentitzea, gertutik urrutirako bidea egitea dela emankorra. Zergatik, bada, milurtetan gorpuztutako herriaren hizkuntza eta kultura ukatu?

Curriculumak gaitasunei, eta ez edukiei, lehentasuna ematea urrats bat da. Baina, Herri baten kultura eta izaera ez da mugatzen folklorera, hizkuntza batean oinarritutako bizipena da, pentsamendu kolektiboa da, nagusitzen diren balioak dira, mundua ikusteko, interpretatzeko eta horren garapenean eragiteko modua da.

# kronika

Nafarroan euskarazko irakaskuntzako eragileak Nafar Gobernuak ezarri nahi duen British programaren aurka agertu dira. Izan ere, maiatzeko hauteskundeak irabaziz gero, 25 British school garatuko ditu UPNk datorren lau urteetan.

Hori dela eta, programa horien kontrako plataforma sortu dute. Sortzen-lkasbatuaz, ELA, LAB, eta EILAS sindikatuak. Eragile horien ustez, “D ereduaren kontrako apustua” da gaztelania eta ingelesa uztartzen dituen programa hori. Beraien ustez, helburua “D ereduaren goranzko bidea moztea eta geldiaraztea” da. Ingelesa eta gaztelania uztartzeko lehen pausoak Tuterako Elvira España ikastetxean hasi ziren duela 10 urte, eta Hezkuntza Departamentuaren ustez, bertako esperientzia ezagutuz, sistema horrek onurak izango ditu. British programa Espainiako Ministerioaren eta British Council-en arteko hitzarmen baten ondorio da eta ingelesa bultzatzea du xede.



## Greben emaitzak ikusteko daude oraindik

Azken hilabeteetan nahiko blokeatuta egon da Euskal Autonomi Erkidegoko mahai sektoriala eta maiatzean horren harira mugimendu eta zarata handia egon da. Maiatzak 11an bildu ziren sindikatuak Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarekin, guztiak hitz egiteko prest. 13 orduko bileraren ostean, ez zen adostasunik lortu eta hortaz, astebukaera hartu zuten hausnarketa gisa. Baina astelehenean ere ez zen akordiorik egon sindikatuen gehiengoaren aldetik. Horren harira, lan baldintza duinak aldarrikatuz eta Jaurlaritzaren jarrera itxia salatuz, hainbat greba deialdi egin zituzten LAB, ELA, STEE EILAS, eta UGT sindikatuak. Hezkuntza Sailak, bere aldetik, birritan errepikatu du greba egiteko arrazoirik ez dagoela eta beraiek jarrera irekia dutela.

Sindikatuak, egonkortasuna galdu-

tako 1.500 irakaslek 2011. urtera arte enpleguari eustea proposatu zuen, eta hori izan zen Jaurlaritza eta sindikatuak izan zuten hurbilpen bakarra. Bestalde, sindikatuak, lansariak hobetzeko poltsa irakasle figura guztietara zabaltzea, 55 urte baino gehiagoko irakasleen eskola orduak murriztea eta eskola behar berrietarako irakasleria eta kreditu orduak gehitzea ere eskatu zuten.

Hala ere, egun horretan CCOO-ak aurre akordioa sinatu zuen Hezkuntza Sailarekin eta horren harira hainbat istilu izan dira. Izan ere, beste sindikatuei ez zaie egokia iruditu irakasleen kolektiborearen %31 soilik ordezkatzeko duen sindikatuak akordio hori sinatzea. Sindikatuen iritziz, CCOO eta Hezkuntza Sailaren arteko akordioa “eskasa eta onartezina” da.

Maiatzeko greben erantzunen inguruan datu desberdinak eman dituzte sindikatuak eta Hezkuntza Sailak. Azken greban euren aldarrikapenei beste bat gehitu zien, sailburuaren dimisioa.

	Sindikatuaren arabera	Hezkuntza Sailaren arabera
Mai. 15 Gipuzkoa	% 70	% 48
Mai. 16 Araba	% 60	% 34
Mai. 17 Bizkaia	% 62	% 33
Mai. 18 Zerbitzu	% 65	% 43
Mai. 24 Orokorra	% 65	% 45

## Bi soberakin: adimenduaren baztertzea, adimendua baizik ez onartzea.

Blas Pascal



### Nafarroa eta EAerako curriculum berriak abian

Nafarroako Derrigorrezko Eskolaldirako Curriculum martxoan onartu zuen Hezkuntza Departamentuak eta kritika gogorrak jaso ditu. Izan ere, hainbat hezkuntza eragileren ustez euskarari bizkarra ematen dio eta ez du kontuan hartzen herrialdeko egoera linguistikoa. Besteak beste, LAB, EILAS, Sortzen-Ikasbatuaz eta Herrikoia Federazioak hainbat kritika egin dituzte horren harira.

Euskal Autonomi Erkidegoan ostera, maiatzaren 9an aurkeztu zuen Hezkuntza Sailburuak derrigorrezko eskolaldi osorako Curriculum berria Lakuan. Datorren ikasturtean abian jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako lehen zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehen eta hirugarren kurtsoetan.

1992an agindu zen Lehen Hezkuntzarako Curriculum eta Bigarren Hezkuntzarako, 1994an. Oraingoan Curriculum bakarra izango da 6-16 urte bitartereko, sailburuaren hitzetan “zentzu global eta integratzailea” eman nahian.

Eragile anitz curriculumaren aurka agertu dira azken asteetan, hainbat ezaugarri kritikatu. Sortzen-Ikasbatuaz, EHBE, Ikasle Abertzaleak eta beste eragile batzuek Camposen proposamenak ez duela Euskal Herri osorako balio esan dute, eta ez dela kontuan hartu Euskal Curriculumaren urteetako prozesua. “Iruzurra egin nahi diote Euskal Herri osoko hezkuntza komunitateari” esan dute EHBEko kideek. “Tontxu Camposek Euskal Curriculum gisa aurkeztu duena ez da Euskal Curriculum, EAerako curriculum dekretua da”.

Maiatzaren amaiera arte, sare publikoaren eta sare itunduaren hezkuntza eragileen azken ekarpenak jaso dituzte eta behar diren moldaketak egin ostean EAeko Derrigorrezko Hezkuntza osoa arautuko duen Curriculum onartuko du Jaurlaritzak.

Hezkuntza Sailaren curriculumaren zirriborroa hau ezagutu nahi izanez gero, eskuragarri dago Hezkuntza Sailaren webgunean eeta baita [www.bik-basi.com](http://www.bik-basi.com) web atarian ere. Hezkuntza Sailaren webgunean, ekarpenak egiteko aukera ere ematen da.

Komunikabideetan irakurritakoaren arabera, ez da erabat garbi gelditu zer gertatuko den Bertendonako ikastetxean itxialdia egin zuten irakasleekin; hau da, hizkuntz eskakizuna lortu ez duten irakasleekin. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta CCOO sindikatuak irakaskuntza publikoaren arloan akordiorako oinarria lortu dute, baina gai horren inguruan ez dituzte adierazpen berberak egin.

CCOOk dio hizkuntz eskakizuna ez lortzeagatik egonkortasuna galdu duten irakasleek beste aukera bat izango dutela. Jaurlaritzak, ordea, hori ukatu egin du eta esan du ez duela lehenago indarrean zegoen ezer aldatu; alegia, irakaskuntza lanpostu jakin bat hartzeko ezinbestekoa izango dela jarduera horri dagokion hizkuntza eskakizuna betetzea.

Guztira 157 irakasleren egoeraz ari gara hizketan. Horietako askok urteak pasa dituzte euskara ikasten eta azken hiru urtetan Iralen egon dira liberatuta, soldata osoa kobratuz. Batzuek ez dira azterketetara aurkeztu ere egin, edo juxtu-juxtu hori, aurkeztu eta azterketarik ez egin. Erraztasunak, baliabideak eta denbora faltarik ez dute izan, baina oraindik hizkuntz eskakizuna lortu gabe daude.

# GAIA

## Pedagogia Sistemikoa *eskolan erabiltzen*







**Terapeuta eta psikologo-  
en kontsultatik eskoletara  
hedatu dira Familia Konste-  
lazioak Pedagogia Sistemi-  
koaren bitartez. Eskolako  
egoerak, gatazkak eta ha-  
rremanak hobeto ulertzeko  
balio die hainbati.**

**Euskal Herrian oraindik  
oso ezaguna ez den arren,  
zenbait ikastetxetan espe-  
rientzia izan dute, eta ikasi  
eta ikusitakoarekin gustura  
daude. Horren lekuko ditu-  
gu Leioako Txomin Aresti  
ikastetxeak.**

**Euren hitzekin batera,  
Pedagogia Sistemikoan  
adituak diren Pilar Feijoo  
eta Itziar Agirrek gai hone-  
tara hurbildu gaituzte,  
batez ere zertarako balio  
duen eta nola erabil daite-  
keen azalduz.**

# G

## Pedagogia Sistemikoa eskolan praktikan jartzen hasi da

Pedagogia Sistemikoa. Nahiz eta kontzeptu berri samarra izan, Hik Hasi 107. zenbakian Angélica Olverari egindako elkarrizketan gai hori izan genuen ardatz: “Familia sistemak, eskola sistemak eta gizarte sistemak transmititzen dutenaren bidez irakasten duen pedagogia da, hiru sistemak elkartuz. Irakasleok, askotan, ikaslea testuinguru batetik aterako bagenu bezala ikusten dugu, eta gelan sartzen dugu, non gure egiteko bakarra curriculumeko edukiak irakastea den. Eta ez da hala. Haurrak familia testuinguru bat dakar, gehiago mugatzen duena. Gure txikiek eskolan adieraziko dituzte, ahal bezala, familiako problematika eta sentitzen dituzten emozioak. Eurak dira familia sistemen itzultzaile onenak”.

Pedagogia Sistemikoak gelako eguneroko egoerak, arazoak, gatazkak... bideratzeko laguntza ematen du. Eskola, familia eta gizarte sistematan antolatuta daudela hartzen du abiapuntutzat, eta beraz, sistema horiek aztertzen ditu. Sistema horiei begiratu eta ikusten denak lagundu egiten du egoera ulertzen eta bideratzen. Eredu horren arabera, pertsona bakoitzak familia sistemaren edo eskola sistemaren barruan zer funtzio jokatzen duen jakiteak lagundu egiten du.

### **Familia Konstelazioak dira erreminta**

Horiegiteko Pedagogia Sistemikoak erabiltzen duen tresna Familia Konstelazioa da. Bert Hellinger filosofo eta pedagogoa alemanak sortu zuen metodo hori, eta berehala hedatu zen enpresa eta hezkuntza alorrean. Ikuspegi horrek eskolako gatazkak ulertzen laguntzen du.

Pertsonen harremanen atzean dauden dinamikak ikusarazten ditu. Gelan sor daitezkeen egoeren gaineko informazio teorikoa ematen du. Horretarako, Familia Konstelazioak egiten dira. Hau da, gatazka konpondu nahi dute-

nak biltzen dira eta gatazkaren partaide diren pertsonen papera jokatzen dute, antzerki batean bezala. Baina ez dago gidoirik. “Antzele” bakoitzak sentitzen duena egin behar du, gorputzak eta emozioek eskatzen diotena. Hortik sortzen den “antzezkiuna” interpretatzen da ondoren, eta horrek egoera hobeto ulertzeko eta irtenbideak ikusteko balio du. Pertsonak ez daudenean, panpinekin egin daiteke konstelazioa.

Mugimendu pedagogiko horren bidez ez da inor sendatu nahi; egoera aurkezten da, arazoa non egon daitekeen ikusten (hainbat hipotesi eginez), arazo horretatik ikasteko eta zein eratan esku har daitekeen ikusteko.

### **Euskal Herrian horretan dihardutenak**

Euskal Herrian Pedagogia Sistemikoa lantzen duten talde batzuk badira; besteak beste, Sorkari S.L. eta Psicoespacio Bilbon; eta Alea eta Jarein Donostian. Kabinete horiek kontsulta pertsonalak edukitzeaz gain, zenbait ikastetxerekin ere landu dute.

Prestakuntzari dagokionez, orain arte Pedagogia Sistemikoaren diplomatura ikasketak eskaini izan dira Madrilen, Elxen, Bartzelonan eta Sevillan. Urtebeteko iraupena zuten eta Mexikoko Emilio Cárdenas Unibertsitateak eta hango gobernuak abalaturatu zeuden. Datorren ikasturte aurrera, ordea, Euskal Herrian eta Palma de Mallorcan ere eskainiko da, eta diplomatura izateko 2 urteko masterra izatera pasako da: lehenengo ikasturtea Gipuzkoan egin ahal izango da 2007ko urri edo azaro aldean hasita (informazioa 637 893 079 eta [iaguirrepsicoespacio@yahoo.es](mailto:iaguirrepsicoespacio@yahoo.es)), eta bigarrena Bartzelonan. Algéllica Olvera eta Mariáne Frank adituak izango dira irakasle. Horrekin batera, titulua baliozkotzeko ahaleginetan dabilta. Prestakuntzaheziketaren arloan mugitzen direnei zuzenduta dago.

# Bide berriak irekiz

## Pedagogia Sistemikoa eta haren aukerak heziketan



**Pilar FEIJOO**

**SORKARIKO KIDEA, PSIKOLOGOA ETA  
PEDAGOGIA SISTEMIKOAN DIPLOMATUA**

### **Zer da pedagogia sistemikoa? Sistemen Teoria eta Familia Konstelazioen metodoa hezkuntzara aplikatua.**

-Sistemen Teoriak erakusten du, gizakiok, konturatu gabe, harreman sare batean elkarri lotuta gaudela. Harreman sare horren izena Sistema da eta eragin handia dauka gure bizitzan. Teoria horren arabera, ikasteko motibazioa eza eta ikastetxean portaera txarrak ulertzeko eta aldatzeko familia sistemari begiratu behar diogu. Zergatik? Jokabide horiek ez direlako haurren akatsak, sistemako arazoaren sintomak baizik.

- Familia Konstelazioek, alde bateatik, sistema konkretu batean zer gertatzen den ulertzeko balio dute. Beste aldetik, sistemako arazoak konpontzeko ere baliagarriak izaten dira. Irakasleontzat tresna onak dira, konstelazio bat egin ondoren gauza asko aldatzen bai-

tira. Batez ere gure jarrera lasaitu eta ireki egiten da. Konstelazioei esker gure lekua aurkitzen dugu eta indar gehiagorekin egiten dugu lan. Batzuetan haurren portaera berez hobetzen da, nahiz eta konstelazioen saioan ez egon.

### **Pedagogia Sistemikoak hainbat mailatarako irtenbideak ekartzen ditu:**

- Eskolaren antolaketan: Pedagogia Sistemikoa estamentuen arteko harremanak errazagoak izan daitezten eta ikuskaritzak, zuzendaritzak, aholkulariak, irakasleak, ikasleak, familiak... elkarlanean ari daitezten ahalegintzen da.

- Eskola heziketagine gisa hartuta: Pedagogia Sistemikoak ikaskuntzarako jarduerak egiteko ideiak ematen ditu. Edukietan familiako eta sistemako elementuak sartzen direnean, hobeto ikasten da.

- Eskola elkarbizitzako ingurune demokratiko moduan hartuta: Pedagogia Sistemikoak inklusioa, maitasuna, gatazken ebazpena eta komunitatearen parte-hartzea indartzen ditu.

- Eskola irakasleen etengabeko hobekuntzarako oinarri gisa hartuta: Familia Konstelazioek kasuak aztertzeke eta zentroaren funtzionamendua hobetzeko aukera ematen dute.

### **Pedagogia Sistemikoan prestatzen garen profesionalok, geure kompetentziak handitzen ditugu hainbat arlotan:**

- Indartsuago sentitzen gara lan egiterakoan: hobeto kokatzen garelako lehen higadura eta alferrikako ahalegi-

nak sortzen zizkiguten egoeretan.

- Portaera disruptiboan atzean aurkitzen den maitasuna igartzen dugu. Errespetuzko ulerkuntza horri esker hobeto laguntzen diegu ikasleei gizarteratzen.

- Familiakiko harremanak hobetu egiten ditugu: ondorioz, haurrek seriotasun handiagoarekin hartzen dituzte ikasketak eta diziplina.

- Kontzeptu sistemikoak eta konstelazio didaktikoak erabil ditzakegu ikasleekin. Konstelazio didaktikoen bidez ikasleek euren familien barruan kokatzen ikasten dute, gelan duten lekua bilatzen dute, eta gatazka ebazten eta gizartearen aldeko jarrerak gartzten ikasten dute. Esperientziak erakutsitakoaren arabera, ikasleak biziki inplikatzeko dira horrelako ekintzetan.

Pedagogia Sistemikoak, gure funtzioetatik atera gabe eta terapiaren arloan sartu gabe, ikasleei ikasketaren proze-

**Familia Konstelazioetan  
parte-hartzeak duen indar  
eraldatzailea azpimarratu  
nahiko nuke. Gauzak ikuspegi  
intelektualetik behatzeko ordez,  
"bihotzetik" sortzen den  
inplikazio egoki batekin ikusten  
dira.**



## Pedagogia Sistemikoa praktikan: nola erabiltzen dugu

**Pilar FEIJOO, Enrique MAIZ**

Pedagogia Sistemikoan diplomatuak  
eta *Sorkariko* kideak

### Lau mailatan lantzen dugu Pedagogia Sistemikoa:

**a)** Irakasleen prestakuntza: ikasturteko gaia ikuspegi sistemikotik lantzen dugu, eta konstelazio didaktikoak egiten ditugu ikaskuntza indartzeko. Bartzuetan konstelazio klasikoak egiten ditugu parte-hartzaileraren bati egoera bati indar gehiagorekin aurre egiten laguntzeko. Pedagogia Sistemikoko ikastaro bereziak egiten ditugunean, irakasleentzat hazteko espazio bat sortzen da eta asko eskertzen dute.

**b)** Aholkularitza pedagogikoa: batzorde pedagogikoei eta zuzendaritza taldeei laguntzen diegu, esku artean dituzten gaiak ikuspegi sistemikotik landuz. Zenbaitetan konstelazioak egiten ditugu aldaketak zein norabidetarantz egin behar diren argiago ikusteko. Pedagogia Sistemikoaren bitartez hausnarketak pedagogikoan eta zentroaren kudeaketan asko sakontzen da.

**c)** Komunikazio eta pedagogia tailerrak: kasuak aztertzen ditugu. Horrela, arazoetan nola inplikatzeko garen konturatzen gara eta gure ikasleei hobeto laguntzeko moduak bilatzen ditugu.

**d)** Ikasleekin eta familiarekin lana: aitei eta amei helduen lekua bete dezaten laguntzen diegu, horrela haurrek euren bete dezaten. Alderantziz gertatzen denean, hau da, haurrek helduen lekua betetzen dutenean eta helduek haurrena, haurrak ez dira ongi garatzen. Horregatik, haurrekin lan egiten dugunean, beti helduen laguntza eskerga dugu.

*Sorkari*, S.L. Gizakiaren Hazkunderako Laguntza Osoa eskaintzen duen taldea da. Pedagogia Sistemikoan ezagutza duen psikologo talde bat pedagogia hori heziketan aplikatzen hasia dago. Hainbat ikastetxetan aritu dira.

suaren aurrean hobeto kokatzen laguntzeko balio du. Orain dela gutxi, aholkulari batek kontatu zidan ikasle etorkin batekin zegoela eta mahai gainean panpina txiki batzuk jarri zituela. Panpinek jatorrizko herrialdea eta han gelditutako familia ordezkatzeko zituzten, eta honako hau esateko eskatu zion: "Mesedez, begira iezadazue ongi ea ikasten dudan eta ea ongi egokitzen naizen bizitza berri honetara". Bartzuetan, horrelako ariketa sinpleek eragin handia izaten dute haurren ariman.

Azkenik, Familia Konstelazioetan parte-hartzeak duen indar eraldatzailea azpimarratu nahiko nuke. Gauzak ikuspegi intelektualetik behatzeko ordez, "bihotzetik" sortzen den inplikazio egoki batekin ikusten dira. Beraz, metodologia hau funtsezkoa iruditzen zait irakasleen emozioak lantzeko eta garapen pertsonalerako.



# Bide berriak irekiz

## Begirada kontzientea heziketa prozesuari



**Itziar AGIRRE**

**PSIKOLOGO ADITUA ADIMEN EMOZIONALEAN ETA  
BERT HELLINGERREN TERAPIA SISTEMIKOAN**

Errealitateari begiratzeko modu bat baino gehiago daudela erakusten digu zientziak. Garai batetik gaur egun arte hezkuntza izugarri garatu da gizartean gertatu diren aldaketa kultural eta teknologikoen eraginez. Horrek ziurgabetasun handia sortu du, eta hainbat taldetan ezintasuna eta indarkeria piztu ditu sarritan oso kontziente ez garen beldurren eta aurreiritzien eraginez.

Horrela, haurrek, familiek eta eskolak esperientzia hori nahasmenaren segurtasun ezarekin bizitzen dute, eta ez bai horrek sortzen dituen emozioak maneiatzeko erremintak behar dituzte.

Testuinguru historiko horretan eta heziketaren esparruko galdera horiei erantzuteko sortu da Pedagogia Sistemikoa. Irakaskuntza eta ikaskuntzako zailtasunei aurre egiteko ikuspegi berri bat da. Jatorria Bert Hellingerren terapia sistemiko-fenomenologikoan du, eta Mariane Frank eta Angélica Olvera

terapeutek arrakastaz egokitu dute Alemaniako eta Mexikoko hezkuntzan, hurrenez hurren.

Planteamendu sistemiko horren arabera, talde batek funtziona dezan beharrezkoa da kideak taldeko partaide sentitzea, ematearen eta hartzearen arteko oreka egotea, eta azkenik, arau batzuk egotea izaki sozial gisa esperimintatzeko espazioa bermatzeko.

Eskolak funtzio garrantzitsua betetzen du haurren sozializazio eremuan. Horregatik, gurasoekiko hezkidetzak presente egon behar du eskolako bizitzaren edozein arlotan. Egoera berriak erantzun eraginkorrak emateko tresnak edukitzea eskatzen du. Helburu txikiak edukitzeak eguneroko lana estimulatu du, lehiakor sentiarazten gaitu eta pertsonalki baloratzen laguntzen du.

Gizaki bakoitzak bere erreferentzia taldeei lotuta egoteko beharra du. Haurrak lotura hori behar du ingurunean bizirauteko, ez dio axola zein diren familiaren edo gainerako taldeen ezaugarriak. Lotura horren jabe izateak eta onartzeak bizitzan errotzeko boterea ematen dio. Helduok ulertu egin behar dugu zein garrantzitsua den ikaslearentzat erreferentzia puntu bat izatea, non-baiteko partaide sentitzea.

Haurrak bere jatorrizko familiarekin duen lotura onartzen badugu, jakingo dugu gelan adierazten dituen gatazka pertsonal eta akademikoan atzean familiako dinamika ezkutatuak daudela. Horiek, sarritan inkontzienteki, bere irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan eta sozializazioan eragiten dute.

Gela erakusleihen bihurtzen da, eta bertan ikasleak bere familia bizitzen ari den egoera emozionala erakusten du.

Orduan, lotura hori onartzeari garrantzia emanez, irtenbiderako itxaropenak erreagoak bihurtzen dira: gurasoen eta eskolaren arteko elkartasunetik sortzen da irtenbidea. Eta horrek zalantzarik gabeko planteamendu batera garamatza: mende honetan pedagogiarenean ikuspegi sistemikoa da.

Planteamendu horretatik, beharrezkoa da ikaslearen gurasoak diren moduan onartzea, aldatzen saiatu gabe. Etxean zama emozionala duten zerbitzu bizitzen ari baldin badira, eduki kurrikularrek garrantzia galtzen dute eurentzat.

Ikasleen portaera antisozialak edo desmotibatzaileak sarritan gurasoen arreta bereganatzeko modu bat dira; etxean hori adierazteko modurik aurkitzen ez dutenez, eskolan adierazten dute. Gurasoek, aldi berean, askotan etxeko elkarbizitzaren errealitatea ezkutatu egiten dute. Ikastetxeko hormak seme-ari edo alabari muga indartsuak jartzeko gai izango direla pentsatzen dute, eta horrela eskolan eta gizartean egoki integratuko dela. Euren erantzukizuna eskolaren gain uzten dute.

Premiazkoa da neska-mutilak elkarrekin hezi behar ditugula eta erantzukizuna partekatua dela erakustea gurasoei. Etorkizuneko belaunaldien hezitzaile gisa, bakoitzak bere lekua bete behar du.

Beste kultura batzuetako ikasleak sartu direnean, argi gelditu da ikasleek euren jatorrizko sistemari dioten leial-



tasuna. Ikasleak bere gurasoak errespetatzen dituztela ikusten duenean, seguruago eta duinago sentitzen da eta Instituzioarenganako konfiantza hartzen du.

Nahiz eta ikasleak bere sistema arbuia, jakin behar dugu barru-barruan sistemako partaide bakoitzarekiko lotura estua duela. Kide garen sistema bakoitzean zer leku dagokigun onartzeak segurtasuna ematen digu geure barruko indarrarekin konektatzeko.

Pedagogia Sistemikoa heziketarako paradigma berri bat da. Instituzioa eta familia integratzen ditu. Gelako irakaskuntza eta ikaskuntza eta sozializazio prozesuetan sortzen diren errealitate emozionalez hitz egiten digu.

Paradigma berri honek heziketako metodologiaren begirada aldatzeko aukera emango digu, sistemaren barruan geure lekua aurki dezagun. Horrek hezitzaile gisa indartu egingo gaitu eta eduki kurrikularren eta gaitasun sozialen hezitzaile lana askoz ere egokiago egingo digu.

Begirada kontzienteak sistema eralda dezake, eta gure portaera eraldatuz ikaslearen portaera eraldatzen digu. Horrela, denon artean eraikiko ditugu heziketari lotutako espazioak, koherenteagoak eta ikaslearen errealitate hurbilagoak. Era berean, ikasleak zentzua bilatuko dio bere ikasketa prozesuari, hezitzaileek eta ikastetxeak bere oinarriko beharrak aintzat hartzen dituztela ikusiko duelako.

**Pedagogia Sistemikoa heziketarako paradigma berri bat da. Instituzioa eta familia integratzen ditu.**

## Leioako Txomin Aresti ikastetxeko esperientzia

**Leioako Txomin Aresti ikastetxean Pedagogia Sistemikoa landu dute Sorkari (Gizakiaren Hazkunderako Laguntza Osoa) taldeko psikologoek laguntzaz. Gustura daude euren esperientziarekin eta zer ikasi duten kontatu digute.**

**Nolatan hasi zineten Pedagogia Sistemikoarekin?**

**Lurdes Ormaza zuzendaria.-** Ikasleen jarrera batzuekin kezkatuta eta arduratuta geunden. Orduan, Sorkarikoengana joan ginen laguntza eske. Arazoa planteatu eta errezeta antzeko bat ematea nahi genuen, irtenbide bat. Baina ez zutela horrela lan egiten esan ziguten, ez zutela errezetarik ematen, baizik eta egoera bakoitzaren analisia egin eta azterketa pedagogiko bat osatu. Hori eginda, agian ikasleen jarrera ez, baizik eta gure ikuspegia aldatu beharko zela. Planteamendu berria irudi-

tu zitzaidan eta irakasle guztientzat planteamendu bat egingo zutela esan zidan, gure kezkak eztabaidatzeko eta sistema baten barruan zer egin genezakeen ikusteko.

**Aurretik ba al zenekiten zer zen Pedagogia Sistemikoa?**

**Mari Jose Blanco Haur Hezkuntzako tutorea.-** Sorkarikoak ezagutzen genituen eta haien lana ere bai. Baina Pedagogia Sistemikoa jakin ere ez zen, entzun ere ez.

**Idoia Gallarza Lehen Hezkuntzako tutorea.-** Nik ez, baina arazoak konpontzeko nahiak bultzatuta animatu nintzen. Genituen kasuak aztertzeko aukera ematen zuelako.

**Zertan hasi zineten?**

**Lurdes.-** Irakasle guztientzat aurkezpen orokor bat egin zen, Pedagogia



# Leioako Txomin Arestiko esperientzia

**Haur bakoitzak bere motxila ekartzen du eskolara. Haurra bere familia osoarekin onartu behar dugu. Hala egiten badugu, haurra konturatu egiten da eta egoera aldatu egiten da.**

Sistemikoa eta Familia Konstelazioak zer ziren azaltzeko. Hala, nahi zuenak eman zuen izena orduz kanpoko saioetan. Lehen ikasturtean 18 inguru biltzen ginen, eta bigarrenean 13. Hilean behin bi orduko saioak egiten genituen.

## Zer egiten zenuten saioetan?

**Lurdes.-** Bakoitzak zituen kezkek, arazoak edo egoerak azaltzen zituen, bat aukeratu eta hura aztertu eta konstelatu egiten zen.

## Zer da konstelatea?

**Miren Arrate ikasketa burua.-** Bakoitzak pertsona baten funtzioa hartzea eta antzeztea da, ulertzeko moduan esanda. Bakoitza tokatzen zaion pertsonaren lekuan jartzen da eta zer sentitzen duen ikusten du.

**Maritxu Martinez hezitzailea.-** Antzeztea baino gehiago bizitzea da. Zeren nik ez nuen espero egiten nuena egitea. Baina paperean sartu eta bai, egiten nuen.

**Lurdes.-** Adibidez, amaren paperean egonda, batzuetan agian haurren ondoan kokatzen zara, eta hurrena aldentu. Ez duzu ulertzen zergatik, baina leku batean ez zaude ondo eta beste ba-

tera mugitzen zara. Orduan, egoera bakoitzean zer gertatzen den pentsatzen hasten zara: zer gertatzen da haur horren bizitzan edo gelan egoera horietan?

## Jarraitzen al duzue saioekin?

**Lurdes.-** Ez, bi ikasturtetan aritu ondoren, Pedagogia Sistemikoa eskola honetan eman behar zuena eman zuela ikusi genuen. Egindakoa hor zegoen, hor gelditu zen, eta horretan utzi behar zen.

## Orduan, orain ez duzue konstelaten?

**Idoia.-** Ez, baina batzuetan badugu haren mira.

**Lurdes.-** Halere, nik uste dut eskolan zerbait aldatu dela. Ez dugu lehenengo eran lan egiten, ikuspegia guztiz aldatu da, bai ikasleekiko, bai lankideekiko, bai gurasoekiko eta bai eskolarekiko.

## Zertan aldatu da zuen ikuspegia? Zer ikasi duzue?

**Mari Jose.-** Niretzat gauzarik garrantzitsuena izan da konturatzea haurrak ez direla txarto portatzen nahi dutelako. Pentsatzen dugu gu izorratzeko portatzen direla gaizki, eta ez da hala; horren atzean beti daude beren familia eta beren bizitza. Haurrek hori dena dardarte eskolara eta horren eraginagatik, ezin dira beste modu batera portatu. Hori ikusiz, onartuz eta horren atzetik zer dagoen eta zer ez dagoen jakinez, hobeto ulertzen da haurren portaera. Hori onartu eta gero, egoera aldatu egiten da.

Horregatik, haur bakoitzak bere

motxila ekartzen du (bere familia eta bizitza, eta guk ere bai geurea, noski), eta horren aurrean beste jarrera bat izan behar dugu. Haurra bere familia osoarekin onartu behar dugu. Hala egiten badugu, haurra konturatu egiten da eta egoera aldatu egiten da, bai.

**Idoia.-** Nire gelako haur bat nahiko urduria zen, oihu egiten zuen, eta nik "hau kontrolatuko dut" pentsatzen nuen, "kosta ahala kosta, kontrolatuko dut". Eta hor aritzen nintzen egunero, markatu eta markatu... Horrek pila bat nekutzen du.

Pedagogia Sistemikoa ikuspegiarekin, berriz, erlaxatu egin nintzen. Ez duzu pentsatzen irtenbiderik ez duenik, baizik eta lortuko dugula, baina beste modu batean, urrutira begira, egoera onartuz... portaera aldatzen duzu eta horrekin lasaitasuna dator. Arazoak hor jarraitzen zuen, baina jada ez zen hain larria. Arazoak beste lasaitasun batekin ikusten ikasi dut.

**Maritxu.-** Niri eskola honetan nire lekua zein den jakiteko balio izan dit; non nagoen eta noraino ailegatu behar dudan nire lanarekin. Ikasitako gauzarik garrantzitsuenetako bat izan da norberak bere funtzioa jokatzen ikasi behar duela. Bakoitzak argi eduki behar du zer egin behar duen, zein den bere rola, bere funtzioa. Eta horrekin batera, besteen rola ulertu eta onartu. Irakasleok irakasle gara eta jakin egin behar dugu arazo batzuen aurrean ezin dugula askorik egin; ez gara ez ama, ez aita, ez abadea, ez medikua, irakasleak baizik. Orduan, egoera hori onartu egin behar da eta egoera ez txartzen saiatu behar dugu.

**Miren.-** Gurasoen aurrean beste



modu batera jokatzeko ere ikasi dugu. Nahiko ohituta egon gara aginduak ematen: hau horrela egin behar duzue, beste hori horrela, guk badakigu eta zuek ez dakizue, irakatsi egin behar dizuegu... Hori jada ez da gertatzen une honetan. Beste modu batera kokatzen gara euren aurrean; beraiek badute zeresanik, beraiek ere onena nahi dute euren seme-alabentzat, eta hori jakinda, prest gaude laguntzeko. "Zuek zer pentsatzen duzue? Zer egin dezakegu eskolan haur horren egoera hobetzeko edo bideratzeko? Zer iruditzen zaizue onena? Zer espero duzue eskolatik?" galdetzen diegu orain. Horrela, gurasoak ere, errieta egitera etorri beharrean, hitz egitera etortzen dira.

**Lurdes.-** Sistema batean zerbait aldatzen bada, sistema osoan du eragina. Zuzendari moduan, ikusten dut eskolan zerbait aldatu dela: klaustro kideekiko harremanetan, gauzak antolatze moduan, proiektuak proposatzekoan, gurasoen bileretan... beste modu batera pentsatzen dugu.

Konstelazioen eta Pedagogia Sistemikoaren bidez lasaitu egiten zara: errealitatea hau da, hau egin behar duzue, denon artean konpondu behar duzue eta goazen ahal den neurrian konpontzera eta ulertzera. Hori eginda egoera ez da txarrera joaten, behintzat hor gelditzen da, eta beharbada asko hobetu. Beraz, pila bat lasaitzen zaitu: haurra ez da okerrago jartzen, zu lasai zaude eta horrek eragina izaten du gela. Gu lasai bagaude, beraiek ere bai.

Hezkuntzan irakasleak estresak jota gaudela eta horrelakoak esaten dira. Uste dut sistema hau ona dela pixka bat lasaitzeko eta ikasteko.

Errezetekin beti ikasten duzue zerbait, baina eragin handiagoa izan du konstelazioekin jasotakoak.

## Konstelazioen adibideak

### Familia baten egoera

Ikasle bat heldutasun aldetik apur bat atzeratuta zegoen, jokaera txarra zuen gelan eta beti berak nahi zuena egin nahi zuen. Konstelatu ondoren, zera ikusi zuten irakasleek: aita beti beste aldera begira zegoela. Haurra, berriz, larri ikusten zen eta ama babestu nahian. Desoreka bat zegoen.

Sorkariko terapeutak esan zien aita hiltzera zihoala eta alde egin nahi zuela, horregatik zegoela beti beste aldera begira. Aitak bazekien hiltzera zihoala. Irakasleek ere bazekiten aita gaixorik zegoela (gero hil egin zen). Aitaren papera hartu zuten irakasle gizonaekoak baieztatu zuten paper hori jokatzekoan joateko gogoia sentitzen zuela.

Egoera horretan, haurrak amaren ondoan egon nahi zuen beti, eta horregatik, ez zegoen eskolan. Ama depresio batean jausteko zorian zegoen, eta horregatik, haurrak, ez jausteko, egunero-egunero izugarrikeriak egiten zituen amaren arreta erakartzeko. Berak aitortzen zuen txarto portatzen zela eta hala jarraituko zuela; izan ere, hori behar zuen ama bere gainean izateko. Ama defendatzen edo amari ardua ematen ari zen beti, adi egon zedin eta depresioan eror ez zedin.

### Jantokiko kasua:

Haur eta begiraleen arteko harremanak ez ziren onak jantokian eta konstelatu egin zuten, funtzio hauek jokatu: administrazioaren aldetik ikuskaria-rena, zuzendariarena, jantokiko begirale batena, haurrena... Begiraleek gurasoen tokia hartzen zutelako konturatu ziren: "jan egin behar duzue, ez baduzue jaten...". Eta beraien ardua ez da hori, baizik eta jaten ez badute gurasoei esatea. Begiraleek uste zuten haurrek derrigorrez jan behar zutelako. Beraz, jantokiko arduradunaren aldetik eta eskolako zuzendariaren aldetik esku-hartze bat egin behar zela ikusi zen, langileei euren funtzioa onartzen laguntzeko. Gerorik, egoera eta harremanak hobetu egin dira eta horretan jarraitzen dute.

### Orduz kanpoko ekintzen adibidea:

Antolatzen ziren hainbat ekintza txarto ateratzen ziren, eta ez zekiten zer-gatik. Konstelatu ondoren, ikusi zuten arazoa ez zela gaizki antolatuta zeudela edo haurrak gaizki portatzen zirela, baizik eta une desegokian antolatzen zirela. Irakasleek prestakuntzarako zuten arratsaldean antolatzen ziren, eta haurrek ezin zuten ulertu horrelako ekintzak eskola ordutegian egitea.

Ondorioz, gauzak aldatzen hasi ziren eta une honetan, sinestezina iruditzen zaien arren, arazoaren erdiak ere ez dituzte.

# torben rosenorn

## *ELKARRIZKETA*

Danimarkako Aarlborg Unibertsitateko  
Ingeniaritza, Zientzia eta Medikuntza Fakultateko zuzendaria

“Garrantzitsuena ikasleen jakin-  
mina eta interesa dira, ‘hori jakin  
nahi dut’ esan dezaten lortzea”





# torben rosenorn

E

**“Gure metodologiaren ezaugarri nagusia ikasleen parte-hartzea da. Dena ikasleen ikasketetan fokalizatuta dago eta fokatze horrek ikasleen interesa piztuta mantentzen du. Ezagutza proiektatzen diegu, ezagutza hori behar dutela sentitzen dute eta hori sentitzen denean, motibazioa askoz ere handiagoa izaten da.”**

Danimarkako Aalborg Unibertsitateko Ingeniaritza, Zientzia eta Medikuntza Fakultateko zuzendaria da. Unibertsitate horretan 30 urte daramatzate POPBL irakaskuntza metodologiarekin lanean eta aitzindari bihurtu dira. Arazoen Ebazpenean eta Antolatutako Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntzari deitzen diote POPBL (Project Organized and Problem Based Learning) eta unibertsitateko ikasketa guztiak ikasten dira metodologia horrekin: zientzia sozialak, medikuntza, teknologiakoak, ingeneritzakoak...

Bigarren Hezkuntzan asko hedatu gabeko metodologia den arren, Torben Rosenorn-ek bai erabiltzen duela 13-14 urteko ikasleei Fisika eta Kimika irakasteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean.

Azken urteetan Aalborg Unibertsitateak ikasle kopurua mantentzea lortu du, nahiz eta ikasleek beste ikasketa batzuk egiteko joera izan. Arrazoietako bat euren irakasteko metodologia izan dela sinetsita daude.

Elgoibarko IMH ikastetxeak gonbidatuta izan zen Euskal Herrian euren lan egiteko moduaren berri ematen. Abagune hori aprobetxatu genuen metodologia horren nondik norakoez hitz egiteko.



## **Zergatik ikusi zenuten irakasteko metodologia aldatzeko beharra?**

Gizarteko aldaketa azkarrek, lehentasun eta balio berriek eta teknologia berriek irakasteko modu berriak eskatzen dituzte. Gaur egungo gazteen artean beste kultura bat sortzen ari da eta balioak ere aldatzen ari dira. Horrek irakaskuntzan erabilitako metodologiak aldatzeko beharra sortzen du, batez ere gazteen eta haurren ikaskuntzan.

Gaur egungo haurrek ez dituzte lehengo balioak, ez dute aurreko belau-naldietako haurrek bezala jokutzen. Horregatik, une honetan gertatzen dena jakinez eta ulertuz soilik jakingo dugu zein diren euren interesak. Esate baterako, SMSak eta antzeko teknologiak erabiltzen dituztenean, jakin egin behar dugu zer ari diren egiten eta zertarako ari diren erabiltzen. Euren sare soziala mantentzeko erabiltzen dituzte, eta aldi berean, zenbait gauza egiteko aukera ematen die. Beraz, akzio eremua nahiko zabala da, ni gazte nintzenean baino zabalagoa, nik beste kultura bat bainean garai hartan.

Badago kontuan hartu behar dugun beste gauza bat ere: etengabeko ezagutzaren gehikuntza bat dago. Gure eskura dagoen ezagutza berria gero eta handiagoa da. Eta noski, aurreikusi egin behar dugu ezagutzaren hazkunde garrantzitsu horrek sor dezakeen arriskua. Izan ere, segundo bakar batean ikaragarriko informazio pila eduki dezakegu eta horrek berak desorientatu egin gaitzake.

Horrekin lotuta edo hortik abiatuta, nazioarteko kompetentzia daukagu. Ez dakit zuek gai horietan murgilduta zaudeten, baina Danimarkan, adibidez, PISA dela-eta, lehia batzuk dauzkagu

eta gure gazteak hor sartuta daude.

Horrez gain, gaur egungo gizarteak gaitasun berriak eskatzen ditu. Ez dugu jakin behar gauzak nola egiten diren soilik, baizik eta non eta noiz aplikatu behar den. Horrek guztiak ezagutzaren trukea eta kolaborazioa eskatzen du eta baita jendearekin komunikatzeko gai izatea ere, oinarri eta formazio desberdina duten pertsonekin komunikatzeko gaitasuna izatea. Noski, komunikazio horretan ezagutza hori modu eraginkorrean komunikatu behar da, entzuleek ongi uler dezaten.

Are gehiago, irtenbide jasangarriak emateko gai izan behar dugu. Adibidez, ingeniari-tza ikasketetaz hitz egiten badugu, gaur egun ingeniari-tza arloan irtenbideak jasangarriak ez baldin badira, ez dira irtenbidetzat hartzen.

Azken finean, gai izan behar dugu etengabeko ikaskuntzan murgiltzeko. Gure inguruan aldaketak sortzen badira, gai izan behar dugu horietara egokitzeko eta gure balioak ere egokitzeko balio erantsi hori emanda.

### **Zein dira POPBLren ezaugarri nagusiak?**

Ezaugarri nagusia ikasleen parte-hartzea da. Dena ikasleen ikasketetan fokalizatuta dago eta fokatze horrek ikasleen interesa piztuta mantentzen du. Ezagutza proiektatzen diegu, ezagutza hori behar dutela sentitzen dute eta hori sentitzen denean, motibazioa askoz ere handiagoa izaten da. Ezagutza behar edo nahi dutela nabaritzen badute, euren buruari "hori jakin behar dut" esaten badiote, aurrera jotzen dute.

### **Eta nola lortzen da ikasleek hori esatea?**

Ikasleek eurek erabakiz zein proiektutan egin nahi duten lan eta proiektuari zein norabide eman nahi dioten, betiere gakoak edo giltzak ikasiz.

Oso garrantzitsua da zein norabide-tara jojakitea. Futbolearen gauza bera gertatzen da; garrantzitsua da jakitea zein aldetan sartu behar diren golak.

Gai bat eta beste bat ez dira berdi-



nak, eta garrantzitsua da hori jakitea. Gai bateko bideak eta besteak ez dira berdinak. Joko bateko arauak eta beste batekoak ez diren moduan. Orduan, garrantzitsua da arauak ezagutzeta. Arauak jakin behar dituzte: zer espero duten, nola jokatu joko eta zein diren helburuak. Hori egiten saiatzen gara.

Eurek egin ditzakete euren proiektuak, euren haurrak izango balira bezala. Haurrak adoptatu ere egin daitezke, baina kasu horretan garrantzitsua da bakoitzak bere haurrak izatea. Bizilagunaren haurrak ez duenean oso ongi usaintzen, gureak ez du oso gaizki usaintzen. Gauza bera gertatzen da proiektuekin. Beraiek egiten dute eta beraien erantzukizuna da, eta hori oso garrantzitsua da. Motibazioan izugarriko eragina du horrek.

### **Ikasleen parte-hartzeaz gain, zein beste ezaugarri dira arrakastaren giltzarri?**

Talde lanean asko jarduten gara eta horrek asko erakartzen ditu gazteak. Ondorioz, gazteen artean ospe ona du unibertsitateak.

Elkarriketa ere asko erabiltzen du-

gu. Entzuketara edo alde bakarreko komunikazioari baino garrantzi eta denbora gehiago ematen diegu eztabaidei eta elkarriketei.

Horrez gain, absentismo maila oso baxua daukagu eta hori ere abantaila da.

Azkenik, beste abantaila bat zera da: gauregungo industriak asko preziatzen dituela guk prestatzen ditugun ikasleak, modu egoki eta txukunean lan egin baitezakete. Aurretik sekula eduki gabeko arazoekin lan egin dezakete, behar duten informazioa eta ezagutza eskura dezakete eta hori eraldatu, ulertu eta erabili arazoak konpontzeko eta helburuak lortzeko. Baita sekula horretaz ezer entzun ez badute ere. Zeren badaukate metodologia gai eta kontu berriei buruzko informazioa lortzeko eta badakite nola erabili eta testuinguratu.

### **Nola diseinatzen dira proiektuak?**

Hasteko, helburu bat eta abiapuntu bat daukagu. Abiapuntu horretatik abiatuta, ikasleek helburu hori lortzea nahi dugu.

Hori edukita, proiektua definitu behar dugu. Eta zer da proiektu bat? Solu-

# torben rosenorn

E

**“Zer da proiektu bat? Soluziorik ez duen zerbait. Bukaerako soluzioa zein den jakingo bagenu, ariketa izango litzateke, eta ez proiektua. Horrek desberdintasun handia markatzen du. Zeren ikasle moduan baldin badakizu segur aski irakasleak oraindik ez dakien erantzun bat bilatu behar duzula, motibagarriagoa da.”**



zio-rik ez duen zerbait da. Bukaerako soluzioa zein den jakingo bagenu, ariketa bat izango litzateke, eta ez proiektua. Horrek desberdintasun handia markatzen du. Zeren ikasle moduan baldin badakizu segur aski irakasleak oraindik ez dakien erantzun bat bilatu behar duzula, motibagarriagoa da. Eta gainera, hainbat gauza esperimendatzeko dira bilaketa horretan. Horrela askoz gehiago ikasten da eta proiektuaren hasieran genuen ezagutza helburutik pasatzen da.

Edonola ere, lortu beharreko helburu bat dago beti, eta horra iristen ez bagara, ez dugu arrakastarik izango ibilbidearen barruan edo proiektuaren barruan.

### **Zer proiektu mota lantzen dituzue?**

Diziplina bakar baten barrukoak, ikasketa bateko diziplina desberdinen artekoak eta ikasketa desberdinetako arloak konbinatzen dituztenak daude.

Esate baterako, goi mailako eskola batean egindako diziplina bakarreko adibide bat honakoa hau da: hiruhileko hartan curriculumeko garrantzitsuen

zer zen atera behar zuten, eta gero testu liburu bat idatzi aurretik aukeratutako gai horren inguruan. Horrez gain, arazoak garatu behar ziren testu liburu hori idazteko. Beraz, ez zegoen erantzun bakar eta zuzen bat, erantzun posible ugari baizik. Ikasleen sormenari ateak irekitzen dizkio horrek. Gainera, ikasleek une horretan duten benetako maila zein den ikus daiteke, eta baita normalean zein arazo dituzten ere. Uste dut oso esperientzia garrantzitsua dela eta beste mailetan ere egin beharko litzatekeela.

Beste adibide bat Fisikakoa izan daiteke. Arazo desberdinak planteatzen ditugu eta une hartan ingeniari-tza zibileko lehen urtean zeuden ikasleekin egin genuen proiektua. Lurraren grabitatea neurtzeko eskatu zitzaizkien, eta galdera honakoa hau izan zen: nola neur dezakegu? Beraiek bilatu behar zuten nola neurtu grabitatea, eta noski, euren inizatiba garatu behar zuten horretarako. Lurraren eremu magnetikoa neurtu eta Doppler efektua esplikatzea behar zituztela ere esan zitzaizkien. Ikasleak bi astetan jardun ziren ikertzen, nahi zuten guztietan laborategira joanez, eskuzko ikerketa guztiak ikusiz, esperimendatuz eta demostrazioak eginez. Batzuegan erresistentzia topatu genuen, baina oro har, emaitzak oso onak izan ziren. Gainera, fisika dibertigarria dela konturatu ziren eta euren interesa piztu zuela. Noski, hori askoz ere motibagarriagoa da Fisikako liburu bat irakurtzea baino.




## Ikasketa desberdinetako proiektu interdiziplinarraren adibide bat emango al diguzu?

Ingeniaritza kimikorako egin genuen bat. Hasteko, ikasketa helburuak zehaztu eta definitu genituen, eta ondoren, proiekturako gai bat aukeratu: industria kimikoko produkzio planta bat handitu nahi genuen. Ondoren, ikasleek ikasi beharreko kompetentzia klabeak zein ziren definitu genuen: operatiba kimikoa, arriskuen analisia, legedia horrelako plantentzat...

Gero, beharrezkoak ziren eskolak eman genituen: ondare kimikoen operazioak, destilazioa, asertzioa, beroaren transferentzia, arriskuen analisia, ingurumenaren defentsarako legedia, aktak irakurri... Hau da, bagenekien norantz zihoazen, baina ez non bukatuko zuten.

Jarraian, proiektu oso interesgarria definitu behar izan genuen. Ikasleek defini zezaten utzi genien, ikusteko horrelako gauzekin gehiago ikasten dutela. Hasteko, zera planteatu genuen: petrolioaren produkzioa errefinaketa kopuru baxuarekin egin behar zuten eta arazo horrek eskatzen zituen berezitasun berriak ezagutu behar zituzten. Honako galdera hau planteatu zituzten: zer ondorio izango ditu horrek ingeniaritzaren barruan?

Ondoren, proiektu horrek ezagutzaren eskaerak betetzen zituela egiaztatu behar zuten; hau da, hori egiaztatzen ez bazen ez baitzen proiektu ona. Egiaztatu zuten eduki klabeen inguruko planteamendu guztia interesgarria zela; planta berri eta egokitu baten instrumentazioa eta kontrola ezagutzera ere garrantzitsua zela; arriskua duen gune baten analisia egiten bazen, errefinategi batena adibidez, arriskuen analisia egitea ezinbestekoa zela; eta filtrazio edo istripu handi bat gertatzen bada, ingurumen arazoak sortuko direla. Beraz, lau gai horiek barnebiltzen zituen proiektuak, eta hortaz, baliagarriak zen. Horietako bat ezin izan balitz landu, proiektua alboratu egin beharko genukeen, ikasketa edo ezagutza eskaerak ez baitzituen beteko.



Gai hori bera gehiago konplika daiteke: planta industrial bateko istripuaren ondorioak gutxitzeko eskatuz, adibidez. Hori benetan gai konplexua da eta ikasgai askotako ezagutza izatea eskatzen du. Bizitza errealekin zerikusia du, bizitza bera ere konplexua baita, eta gai izan behar baitugu konplexutasun horretan maneiatzeko.

### Azken batean, arazo errealean oinarritutako proiektuak planteatzen dituzue.

Bai, hala da. Adibide gehiago emango dizkizuet. Erizantza ikasketetan, adibidez, honako arazo hau planteatu dezakegu: diabetesa duten pertsonen badakite nola bizi behar duten, zein bizitza estilo eraman behar duten. Batzuek zergatik ez dute erabiltzen ezagutza hori euren osasuna eta bizitza hobetzeko? Arazo horretatik abiatuta, proiektua hauxe litzateke: garatu heziketa programa bat edo kanpaina publiko bat diabetikoei bizitza osasuntsuagoa izaten laguntzeko.

Gizarte Zientzien ikasketetako arazo bat honako hau izan daiteke: heziketa asko liburuetan, egunkarietan eta Interneten oinarritzen da, hau da, hizkuntza idatzian. Alfabetatu gabeek ez dakite irakurtzen eta Internet hiritar batzuen eskura soilik dago. Orduan,

nola hezi alfabetatu gabeak? Proiektua: alfabetatu gabekoak hezteko programa bat eratu.

Ingurumen Zientzietako beste adibide bat emango dizuet. Arazoa: ur edangarria baliabide mugatu da. Hala ere, ur hori arrainak eta izotza garraiatzeko erabiltzen da XX portuko salmenta gunean. Proiektua: bilatu irtenbide alternatiboak arraina garraiatzeko urarentzat XX porturako (urak FDA berezitasunak eduki behar ditu).

### Nola ziurtatzen duzue ikasleek behar duten curriculumak ikasten dutela?

Hasteko, zera azpimarratu behar da: unibertsitatearen erantzukizuna dela ikasleek zein kompetentzia eskuratu behar dituzten zehaztea. Beraz, unibertsitatearen erantzukizuna da kompetentzia horiek lortzeko baliagarriak diren proiektuak diseinatzea ere.

Garrantzitsuena kompetentzia gaikoak zehaztea da, hau da, zein dira hiruhileko bakoitzean ikasleek eskuratzera nahi dugun kompetentziak?

Beraz, ikasleei esan egin behar diegu zein diren kompetentzia klabeak, zein den kompetentzia horien irismena eta zein diren helburu espezifikoak. Ondoren, horien inguruko proiektuak egiten ditugu, horrela ikasleek konpe-

# E

**“Eurek egin ditzakete euren proiektuak, euren haurrak izango balira bezala. Haurrak adoptatu egin daitezke, baina kasu honetan garrantzitsuagoa da bakoitzak bere haurra izatea. Bizilagunaren haurrak ez duenean oso ongi usaintzen, gureak ez du oso gaizki usaintzen. Gauza bera gertatzen da proiektuekin. Beraiek egiten dute eta beraien erantzukizuna da. Motibazioan izugarritzko eragina du horrek.”**

tentzia klabe horiekin lan egin dezaten.

Hori oso garrantzitsua da. Hau da, ez interesgarriak diren gai edo ikasgai batzuk aukeratzea eta kito. Ez. Gai edo ikasgai bakoitzean emandako edukia-rekin proiektu batzuk egiten ikasi behar dute. Bestela, denbora alferrik gal-tzea izango litzateke.

Horrela, sakoneko ikasketa egiten dugu, aintzat hartuz ezagutza, ulermena eta lehen aipatutako guztiaren aplikazioa.

Diziplina nagusiak maila bakoitze-ko proiektuetan txertatuta egoten dira eta proiektu horiek lantzen direnean lantzen dira hor barruan naturalki txer-tatuta dauden edukiak.

Garrantzitsuena zera da: proiektu-ak ikasleen interesen eta jakin-mina-ren arabera diseinatzea eta irakaslea hizlari/irakurle izatetik laguntzaile iza-tera pasatzea.

### **Hori dena ikusita, zein da ohiko eskola ordu baten eta zuen unibertsitateko eskola ordu baten arteko desberdintasuna praktikan?**

Eskola magistralak normalean eza- gutza transmititzean zentratzen dira eta ez ulermenean. Ulermena transmititu- tako ezagutza horren gainean hausnar- tzen denean lortzen da, jasotako ezagu- tzarik ez galtzen saiatuz. Beraz, hausnar dezaten saiatzen gara, hori izango baita gero lan egiteko erabiliko duten mo- dua. Bakoitzak modu desberdinean ja- sotzen ditu azalpenak eta talde lanean horren gainean hausnar dezaten bul- tzatzen dugu. Eztabaidak sorrarazten ditugu eta hausnartu duten horri bu- ruzko laburpena egiten dezaten ziurta- tzen dugu. Hori da guk normalean era- biltzen dugun metodoa: kontzeptu ber- riak ikasi eta horien gainean hausnartu.

### **Gero nola ebaluatzen duzue?**

Ikasturteko azken zatia testen zatia izan ohi da. Modu batean edo bestean landu ditugun teoriak neurtu egin be- har ditugu. Orduan, ikasleek egiten ari garena ulertzen dutela eta erabiltzen dutela ziurtatzeko une honetan Europa osoan egiten dena egiten dugu: kreditu

sistema erabili. Ezagutza jakin bat hartu dela akreditatu egin behar da, hau da, arlo kontzeptualean berrikuntza ba- tzuk sartu direla. Eta egiten duguna egiaztatzeko gai izan behar dugu. Hori da egiten duguna.

Hori guztia egiteko ebaluazio plan bat zehaztuta daukagu. Gai bakoitza- ren helburuak zehaztuta eta taula bate- an jarrita dauzkagu. Balioak eta jarrerak ere aztertzen dira, jarrerak ikasketa as- ko baldintzatzen baitu.

Azterketa tradizionalekin curricu- lumaren % 5 aztertzen da, gainerakoa ebaluatu gabe gelditzen da. Beste eba- luazio moduekin, ordea, erreminta ob- jektiboagoak lor daitezke eta benetan ikasleek kontzeptuei buruz dakitena erakusten digute.

Edonola ere, uste dut posible dela gure ebaluazioa eta ebaluazio erre- mintak hobetzea. Baina horrek denbo- ra asko eskatzen du, dudarik gabe. Ha- lere, uste dut ongi inbertitutako den- bora dela.

### **Nolakoak dira zuen unibertsitateko gelak?**

Bi gela mota dauzkagu: auditorioak eta lan egiteko gelak. Esate baterako, edukiak azaldu behar baditugu, ez du- gu ikasleen gertuko kontaktua hain- beste behar eta auditorioan ongi mol- datzen gara. Egia esan, ni asko mugit- zen naiz eskolak ematerakoan eta hitz egiterakoan, eta horrek laguntzen dit ikasleen arreta pizten.

Baina talde lana egin nahi badugu auditoriek ez dute balio. Horretarako lan-gelak dauzkagu. 24 orduetan irekita egoten dira, asteko zazpi egunetan eta Gabonak eta Urte Berri eguna bitartean soilik ixten dira. Ikasleek denbora asko pasatzen dute gela horietan eztabaida- tzen eta lan egiten.

### **Zein da ikasleen iritzia POPBLren inguruan? Gogorra egiten al zaie metodologia horrekin aritzea?**

Egoeraren abantailaz baliatzen naiz. Institututik unibertsitatera etor- tzen direnean gauza asko dira berriak eta desberdinak eurentzat. Azken fine-

an, Lehen Hezkuntzako ikastetxetik Bigarren Hezkuntzako joatearen antzeko aldaketa da. Beraz, esaten diegan lehendabiziko gauza zera da: hemen arauak desberdinak direla, joko eremua beste bat dela, orain arte ikasi dutena eraikitzen ahaleginduko garela, orain arteko ikasi dutena hedatzen saiatuko garela eta ikuspegi berriak landuko ditugula. Hori esaten diet, eta ez "hau unibertsitatea da, orain dena zailagoa da..." eta horrelakoak. Gazteak benetan motibatuta etortzen dira, badakite zerbait berriaren aurrean dardela, aldaketa baten aurrean aurkitzen direla. Bost urte pasa ondoren, ez dute inolako kezarik izaten. Ikasleek asko baloratzen duten unibertsitatea da.

**Metodologia honek irakasleen lan egiteko modua aldatzea dakar. Prestakuntza berezirik jasotzen al duzue?**

Une honetan nire lankideei irakasten dihardut. Autodidakta samarrak gara. Urtean gutxienez bi egun dauzkagu, pedagogia egunak deitzen diegunak. Edonor etor daiteke eta gai pedagogikoez eztabaidatzen dugu; hala nola akreditazio arazoak, zer egiten ari garen, proiektu onak diseinatzeko arazoak eta abar.

**Eredu hau duen unibertsitate bakarra al zarete?**

Badaude metodologia bera erabiltzen duten unibertsitate batzuk, baina beste modu batera, ez erabat, gurean bezala.

**Eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan erabiltzen al da?**

Batzuk hasi dira ezartzen, mantsomantso bada ere. Izan ere, konturatu dira ez dutela ezer egin behar diziplinartean. Institutuetan normalean ez dute diziplinarteko lanik egiten. Baina ez dute proiektuekin lan egiten, ariketekin baizik. Hau da, irakasleak badaki non bukatuko duten. Beraz, hori ez da proiektua. Antzekoa izan daiteke, baina ikasleen motibazioa ez da berbera. Horrela dena oso modu analitikoan



lantzen da, eta gure kasuan, aldiz, ez. 13-14 urteko gazteekin iaz probatu nuen. Fisika eta Kimika irakasten diet eta psikodrama nahastu nuen. Drama antzeko bat egin nuen kimikako molekulekin eta antzerki batean bezala antzeztu zuten: bat molekula zen, bestea atomoa... Horrela, askoz ere errazago ulertu zuten ikasi behar zutena, nik mila aldiz errepikatuta baino errazago. Ez nuen sekula probatu, esperimendu bat izan zen eta atsegina izateaz gain, asko ikasi zuten.

**POPBL eredia orokorrean hedatzeko modukoa iruditzen al zaizu?**

Arazoen ebazpenean eta antolatutako proiektuetan oinarritutako irakaskuntzaz ari garenean, erlijio moduko bat dela dirudi, ikasteko modurik egokiena dela sinesten dugulako eta hori ari garelako zabaltzen eta aholkatzen mundu guztiari. Baina esan behar nago metodo hau ez dela modu egokia arlo guztietan eta alderdi guztietan ikasteko eta irakasteko. Ikasketa maila desberdinei arreta jartzen badiegu, hau da, ezagutza, ulermena, ikasketa sakona... maila desberdinak daudela ikusten dugu. Arazoen ebazpenean eta antolatutako proiektuetan oinarritutako metodologia aplikatzen badugu, zenbait arlotan aplikatzea askoz errazagoa dela ikusiko dugu. Eskola magistral batean, esate baterako, informazio zeha-

tza eman beharko genuke, besterik gabe, eta horretarako ez da hain egokia gure metodologia. Proiektu bat informaziorik eta edukirik gabe hasiko bagenu, ikasleek denbora asko galduko lukete proiektua zeri buruzkoa den jakiten, proiektu horrekin zer definitzen den jakiten. Horregatik, aurretik eduki zehatz bat eduki behar dugu proiektua zein helbururantz doan jakiteko.

Beraz, gure metodoa egokia da lan praktikoa egiten bada, bestela ez. Azken finean, ditugun helburuen arabera erabaki behar da erreminta hau erabili nahi den edo ez.

**Ikasleei denbora tarte bat eman behar zaie ezagutza berri bat jasotzeko eta barneratzeko. Normalean, gainera, irakasten dugunean, espektatiba batzuk izan ohi ditugu eurekiko.**

**Baina lanbide honetan jakin behar dugu dena ezin dugula erakutsi, denborak mugatzen gaituela. Daukagun ezagutza kopurua daukagun denborara egokitu behar dugu. Beraz, batzuetan posible izaten da nahi dugun ezagutza guztia erakustea eta beste batzuetan gutxiago erakutsi beharko dugu.**

## Akuikultura

### Arrain haztegien aldeko apustua

2004-2005 ikasturtean jarri zen martxan Akuikultura zikloa Mutrikuko BHIIn. Jada hirugarren ikasturtea da, eta gero eta ikasle gehiago animatzen dira bertan parte hartzera. Aurten, denera 35-40 ikasle daude, Pasaiatik hasi eta Astigarraga, Eibar, Markina, Laudio eta Nafarroakoak, baina gehienak kostaldetik etorriak dira.

Badakite ez dela erraza Euskal Herrian sektore horretan lanean aritzea, baina gustatzen zaielako daude bertan, bokazioz. Eskaera handia dago mediterraneo inguruan, kanariar uharteetan, Frantzia, Galizian zein Irlandan, eta bertan ikasi duten ikasle batzuk inguru horietan dabilta lanean. Euskal Herriari dagokionez, Senperen ere badago beste akuikultura eskola bat, baina Mutrikukoa itsasoko akuikultura lantzen duen bakarra da.

Bertan dabiltzan irakasleek ere nahiko bokazio dute, ez baita ziklo horretako ataza bakarra ikasgaiak ongi prestatzea eta garatzea. Lan ugari dute hainbeste bizidunekin, eta oporretan eta asteburuetan ere txandak egin behar dituzte arrain haztegiek martxan irauteko. Hori eta gehiago kontatu digu Imanol Garate zikloko irakasleak.

#### Nola eta noiz sortu zen Akuikultura zikloa?

Idea 2001. urtean errotu genuen. Ni 2000. urtean etorri nintzen Mutriku BHIra eta proiektu hori aurrera eramatea eskaini zidaten. Mutrikuko institutuak lehenago ere bultzatu izan du; lehen saiakera 1992an izan zela uste dut. 1984an jada hasi ziren halako ziklo bat antolatzeak suposatuko zuena haztatzen, baina orduan ideia bertan behera gelditu zen.

Egia esan, eskolak egiteko gogoia zuen, baldintza onak zituen hori egiteko, eta batez ere, itsasotik gertu gaude. Txostena prestatu eta Hezkuntza Sailari interesgarria iruditu zitzaion. Guk dauzkagun azpiegitura hauek izateko diru asko inbertitu behar da, eta Hezkuntza Saila horretarako prest agertu zen.

Egia da hemengo sektorea oso urria dela, ez dela asko ekoizten. Beraz, sektore asko ez duen lanbide zikloa dela aitortu behar dugu. Baina, bestalde, bertako ikasleak Galiziako eta Andaluziako eskoletara joaten zirela ikusten genuen, eta sektorea bultzatzeko apustua egin nahi genuen.

Pasa den ekainean, 2006an, atera zen lehen promozioa. Orain jende gehiago animatzen da. Lehen promozioa hasi zenean, artean azpiegiturak amaitu gabe zeuden. Aberatsa izan zen prozesua, izan ere, ikasleek beraiek muntatu behar izan zituzten gauza ugari.

#### Eta kultura hau Euskal Herrian zabalduko dela uste al duzu?



**Imanol Garate**  
Akuikultura zikloko irakaslea

#### Hau da, sektorea ugalduko dela?

Guk baietz uste dugu, itxaropena daukagu, baina zaila da. Ez dago akuikultura sektorerik, baina ez da baldintzarik ez dagoelako, baizik eta horretarako apusturik egin ez delako. Dena dela, baldintzak ez dira oso onak hemen. Guk ez dugu enpresa mundua modu makroan bultzatu nahi. Goi mailako heziketa da, eta horrek instalazioak aurrera eramateko gaitasuna ematen die ikasleei. Erdi mailakoa balitz, bertan lan egiteko gaitasuna izango lukete, ez instalazio guztia aurrera eramatekoa. Langileak behar dituzten enpresak egongo balira, orduan erdi mailako zikloa baliagarriagoa izango litzateke, baina une honetan behar dena enpresak sortzea da. Gu ez gara 30 langileko enpresari buruz mintzo, ez dugu hori buruan. Enpresa txikiak, hots, negozio txikiak sortzera bideratu nahi ditugu. Gaur egun hemen kontsumitzen diren produktuak ekoizteko. Izan ere, jada-



## 2015. urterako itsasotik lortuko duguna eta arrain hazkuntzatik lortuko duguna parekoak izango dira. Guretzat eskola gisa garrantzitsua da akuikultura sektorea garatzea, eta teknikariak sortzen ari gara.

nik, itsasoan ez dago denontzat adina arrain!

### Euskal Herrian sektorerik ez egoteak, ez du esan nahi arrain haztegiatiko arraina kontsumitzen ez dugunik, ezta?

Ez dago denontzako arrainik, eta hor sakonean hamaika gauza daude. Kalitatearen kontua, adibidez. Bat hobe dela, bestea txarragoa. Nik ez dut topiko horietan sinesten. Ez dut esango itsasokoa ona ez denik. Baina ona edo txarra, arrainak jaten duenaren arabera izango da. Haragiarekin berdina gertatzen da. Eta errealitatea zera da: egun arrantzan harrapatzen denak ez

dituela beharrak asetzen.

Kalkuluak egiten dira eta esaten da 2025. urtean itsasotik lortuko duguna eta arrain hazkuntzatik lortuko duguna parekoak izango direla. Gaur egun data hori aurreratu egin da 2015era. Ondorioz, akuikultura etengabe hazten ari da. Lehorrean bezala da; abeltzaintza edo ehizatik bizi gintezke, baina ehizak ez du gure kontsumo maila betetzen, eta itsasoan gauza bera gertatzen da. Une honetan Euskal Herrian arrantza-leak daude tradizioz arrantzale izan garelako, baina hemen ez dago arrantza-tzeko arrainik. Daukagunera moldatu behar dugu. Ez dut esan nahi arrantzarik egin behar ez denik, baina kontuz ibili behar dugu. Guretzat eskola gisa garrantzitsua da akuikultura sektorea garatzea, eta horretarako teknikariak sortzen ari gara.

### Zein ikasgai dira oinarritzkoenak?

Lehen mailako ikasgaiak teknikoagoak dira. Arrainen hazkuntza ikasten da, espezien garapena jaiotzatik heriotzaraino, nola bizitzen diren... Moluskuen hazkuntzan bibalbioak: txirlak, ostrak... zefalopodoak: olagarroak, txokoak eta beste nola hazten diren aztertzen da, nola eduki horiek instalazioetan eta abar.

Hazkuntza osagarrietan, arrainei jaten emateko izaki bizidunak sortzen eta ustiatzen ikasten da: janari bizia egi-

ten, hala nola zooplanktona, zelulabakarreko algak eta abar. Akuikulturako ekoizpenen antolaketa, instalazioei buruz ikasten da, uraren erabilera, muntaia... Denetik pixka bat.

Bigarren mailako ikasgaiak, ostera, espezifikoagoak dira. Teknikoen artean krustazeoen hazkuntza lantzen da, eta akuikulturako ekoizpenen antolaketa ordu arte jasotako ezagupenekin proiektu bat egiten dute, proposamena prestatu. Batzuk, gaur egun, proiektu horri esker benetako instalazio bat garatzen ari dira.

### Hortaz, ikasgaiak praktikoak izango dira, ezta?

Lanbide heziketa izanik, argi dugu prestakuntza praktiko bat eman behar diegula ikasleei. Gauza horiek ezin dira teoriarik ikasi. Adibidez, orain amaitzen ari diren promozio honetan erdiak lizentziadunak dira: Biologian, Itsas Zientzietan... Etorri zirenean teoria ugari zekiten, arraina ezagutu bai, baina ez zekiten arrain hori tanke batean nola mantendu.

Ikasleei, matrikulatzen direnean, zuzenean galdetzen zaie zein altuera eta oin neurri duten. Hasieratik instalazioetan ibiltzen dira, eta horregatik, katiuska zuriak eta amantalak ematen dizkiegu. Gurea arrain haztegi errepika bat da. Arrain haztegi batean arrain espezie bakar bat izan ohi dute; guk, ostera, espezie pila bat dauzkagu. Beraz, finean arrain haztegi txiki asko izango bagenitu bezala da. Espezie bakoitzetik oso kopuru murriztean.

Ikasleak, goizeko 8:55ean etortzen dira, baina 10:00ak arte ez dago ikasgaiarik. Taldeka banatuta daude eta talde bakoitzak aste batean ardura zehatz batzuk bete behar ditu, eta astero-astero ardurak aldatzen dituzte. Hori bai, ardura orokorra jaten ematea da, arrain batzuei pentsua, molusku bibalbioak belarjaleak dira, baina, adibidez, olagarroei karramarroak eman behar zaizkie, eta horretarako ondoan karramarroak hazten ditugu. Hori egunero egin behar da. Esate baterako, ostrei jaten ematen badiegu, jakin egin behar dugu



zenbat alga ematen diegun eta hauen kontzentrazioa zenbatekoa den gehitzen diegun nahastean.

Eta, noski, ikasgaiak praktikoak izateak denbora gehiago eskatzen du. Guk ezin dugu ikasgai bat amaitu besterik gabe liburua itxiz. Arrain bat elikatzen ari bazara, hasi eta amaitu egin behar duzu. Horregatik, ikasgaiak luzeagoak izan ohi dira, egunean bi edo hiru ikasgai izaten ditugu, eta batzuetan uneko ordutegietara ere moldatu behar izaten dugu. Bestalde, ezin dute denek une berean lan bera egin. Nik, adibidez, 19 ikasleko gelan bost taldetan egiten dut lana. Taldetxo bakoitza espezie batekin jarduten da, nahiz eta nik lehen azalpenak denentzat eman.

### Nola ebaluatzen dituzue ikasleak?

Hasteko, asistentziari garrantzi handia ematen diogu. Baina ez etortze-ari soilik, etorri eta lana egiteari baizik. Egunero lan egiteko gaitasuna benetan garrantzitsua da. Bakoitzaren lana baloratzen dugu, baina batez ere talde lana baloratzen da hemen. Ondoren, nota igo nahi duenarentzat azterketa idatzia egiteko aukera ere ematen dugu.

### Nola egiten dituzte praktikak?

Bigarren mailan, azken hiru hilabeteetan praktikak egitera joaten dira. Zorionez, urtero-urtero Leonardo bekak dauzkagu, eta beka horien bitartez kanpora joaten dira gure ikasleak, batez ere Irlandara eta Frantziara. Horretarako kontaktuak ditugu. Orain bigarren mailako batzuk kanpoan daude: bost Irlandan, beste bat Frantzian eta beste bat Angelun. Beste ikasle bat, oster, Ingalaterrako enpresa batean dago. Ikasle horrek lokatsetako zizarearen inguruan proiektua egin nahi du eta Europa guztian enpresa bakarra dago hori lantzen duena, Ingalaterrako hori, hain zuzen.

### Jarduera osagarriak egiten al duzue: arrain haztegi-talara bisitak eta abar?

Bai, Euskal Herriko arrain haztegi gehienetara joaten gara horiek ezagutzera. Horrez gain, estatuko gainerako

eskolekin harremana daukagu. Galizian, Cadizen, Murtzian eta Tarragonan daude eskolak, eta gutxi izanik, elkar ezagutzen dugu. Ziklo bukaerako ikas bidaia ere egiten dugu. Horretarako, ikasleei diru laguntza ematen diegu eta bidaia bera beste esperientziak ezagutzeko baliatzen dute. Oraindaino ikasle taldeak Cadizera joan dira ikas bidaian.

Bestalde, nahiko harreman ona daukagu Senpereko akuikultura eskolarekin, Lycée Agricole Saint Christop-

he lizeoarekin. Beraiek Akuikultura kontinentala jorratzen dute. Hemengo ikasleak bertara joaten dira hango ikasleekin praktikak egitera, eta bertako ikasleak hona etortzen dira gurekin itsasoko akuikultura praktikak egitera.

Horrez gain, eskolak jardunaldiak antolatzen ditu urtero. Mutrikun berdel eguna izaten den garaia probestuz, hainbat aditu eta enpresa ekartzen ditugu, eta ikasleek ere bertan parte hartzen dute. ●



Argazkia: Mutrikuko BHIko Akuikultura zikloa.

## Ikasgaiak

- Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea enpresa txikietan (2. maila)
- Oskoldunen hazkuntza (2. maila)
- Moluskuen hazkuntza (1. maila)
- Arrainen hazkuntza (1. maila)
- Akuikulturako produkzio prozesuaren antolamendua (1. maila)
- Hazkuntza osagarriak (1. maila)
- Lan giroko harremanak (2. maila)
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (2. maila)
- Lantokiko prestakuntza (2. maila)
- Lan prestakuntza eta orientabidea (2. maila)

## Hizkuntzen irakaskuntza iritsi berriekin

Amelia BARQUIN, Pilar HERNANDEZ, Joseba IBARRA, Jon LOPEZ, Ima ORTEGA, Uri RUIZ, Amaia SESMA eta Teresa ZULAIKA

**Euskal gizartean, Europako beste herri askotan bezala, aldaketa sakonak gertatzen ari dira azken 20-30 urteotan. Maila guztietan gertatu ere: esparru guztietako ohituretan, ekonomian eta eguneroko bizimoduan. Aldaketok arin etorri dira, batez ere azken urteotan. Duela hamar urtetik hona –are gehiago bost urtetik hona–, lehen ez bezala, munduko herrialde urrun eta askotako pertsonak gurera etorri dira bizitzera, bizimodu hobe baten bila. Pertsona horiek Euskal Herriko biztanleak direnez gero, euskal hiritarren eskubideak eta betebeharrak dituzte.**

Etorri berriek gure gizartean parte har dezaten eta gurekin batera integratu daitezten, guri dagokigu –harrera gizartea garen aldetik– ahaleginik handiena egitea. Argi izan behar dugu egoera ho-



nek erantzun orokorra eskatzen duela, hau da, eremu sozio-ekonomiko eta, batez ere, politikoan neurri sendoak perspektibaz hartzea. Ahalegin hori ezinbestekoa da gure gizartean bazterketa-poltsak eta desberdintasun sozial handia nahi ez baditugu; etorkizunean gizarte kohesionatua izan nahi badugu, kanpotik etorritakoei euren ere baden (edo izango den) gizarteko partaide direla sentiarazi behar diegu. Bestalde, bertan erroak dauzkagunok argi ulertu behar dugu etorkizuna elkarrekikoa izango dela, edo ez dela inorentzat etorkizun onik izango.

Elkar zenbat eta hobeto ezagutu, zenbat eta ezaugarri gehiago partekatu, orduan eta errazagoa izango da elkarbizitza, areago hizkuntza bera hitz egiten badute; eta denon artean eraiki-

ko dugun gizartea, orekatuagoa. Pentsatu behar dugu gaureskolara datozkigun haurrak hemendik 10 edo 20 urtera herri honetako hiritar helduak izango direla, beren eskubide sozial guztiak aktiboki erabili ahal izango dituzten hiritarrek, herri honen eraikuntzan parte-hartze aktiboa izango dutenak.

Zeregin honetan eskolaren papera ezinbestekoa da. Izan ere, gure artean eskola da haurrak eta haien familiak sozializatzeko tokirik garrantzitsuena. Eta nahiz eta askotan ez den erraza izango, interes handikoa eta zirrarragarria izango da. Aukera honek XXI. mendeko gizartean bizitzeko tresnak emango dizkigu.

Eskoletan ikasle berrien sarrerek ezustean harrapatu gaitu. Orain ere, orientabide eta laguntza handirik jaso

gabe, lehen erantzunak ematea egokitu zaie ikastetxei. Irakasle taldeetan tentsioak sortu dira, eta ulertzekoa da, inork ez baitigu irakatsi, ez baikaituzte prestatu beste herrialde, kultura eta hizkuntzetako ikasleekin lan egiteko. Horrek agerian utzi ditu alde aurretik genituen kontraesanak eta ahuleziak, eta gure segurtasun ezak areagotu ditu.

Ikastetxeetan ere badira hainbat irakasle ahalegin handia egiten ari direnak irakasle horiek eskolatze ona eta probetxuzkoa izan dezaten. Helburu hori lortzeko lanetan Hizkuntza Indartzeko Irakasleak (HIPI irakasleak) dira, batik bat, aitzindari; ikusi besterik ez dago zenbat eta zein irakasle biltzen diren, ikasi nahian, antolatzen diren jardunaldi, ikastaro eta mintegietan.

Foro horietan irakasleon kezka gehienak hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan agertzen dira. Izan ere, badi-rudi ados gaudela denok premiazkoa dela honako galdera hauei erantzutea: zein hizkuntzari eman lehentasuna, nola irakatsi curriculumak hizkuntza berri batean, nola integratu gelan eskolako hizkuntza ez dakien ikasle bat... Irakasleei lan zaila egokitzen ari zaie, ikasle iritsi berrien ikasketak antolatu behar baitituzte, jakin gabe nola bidera daitezkeen, oraindik gure artean eredurik ez dugulako.

Gero eta irakasle etorkin gehiago izango ditugu ikastetxeetan, baina oraindik garaiz gaude hausnartzeko eta planak ondo diseinatzeko. Horretarako, agian –ez baikara hutsetik abiatzen– baliagarria izan daiteke gure sistema elebidunearan arrakasta izan duten praktikak kontuan hartzea eta oraindik errotuta dauzkagun hainbat planteamendu oker baztertea. Beharrezkoa dugu gogoeta sendo egitea. Helburu horrekin ekarpen bat -txikia baina ez bada ere- egin nahi dugu dokumentu honen bidez.

## Ikastetxean ikasleekin lortu beharreko helburuak

Gainerako ikasleekin bezala, etorri berriei dagokienez ere bi helburu nagusi hartu behar dira kontuan eskolatze

prozesua aurrera eramateko:

**Haien sozializazio ona lortzea:** ikasleek harreman zabalak izan ditza- ten, harremanotan eroso senti daitezen, euren hazkuntza ahalik eta harmo- nikoena lortzeko eta eskolako zeregi- netan arduradun eta partaide sentitze- ko, haien jatorria onartzeaz eta estima- tzeaz gain, eskolak bertakotzeko bide- ak eta ezagutzak eman behar dizkie. Izan ere, ikasleen hazkuntza emozio- nalaz, etikoaz eta sozialaz arduratu be- har du eskolak. Zentzu horretan, bere autoestimua zaintzea ere helburu na- gusiarekin lotuta dago: horren barruan jatorrizko kultura eta ezagutzei zor- zaien aitortza eta begirunea daude.

**Haieneskola arrakasta lortzea:** gi- zarteratzeko egoerarik onenean egon daitezen, ikasleek euren ahalmenak ahalik eta gehien garatzea da eskolak duen beste helburu nagusia. Horrek ze- rikusi handia dauka eskolaren izaera eta itun sozialarekin. Gizarte demokra- tikoetan prestakuntza akademikoa da talde sozialen arteko mugikortasuna eta berdintasunerako aukerarik han- diena ematen dituen mekanismoa. Es- kolak arlo horren giltza eta erantzuki- zuna ditu.

Familia etorkinen seme-alabek gi- zarte honetako funtzionamenduaren nondik norakoak ezagutzen ez dituzte- nez, zenbait gauza ulertzeko, zenbait jokabide egoki izateko, ahuleziak izat- en dituzte. Gure funtzionamendu so- zialaren nondik norakoaz ez dute eza- gumendurik, eta ezta segurtasunik ere. Ez dute, ezta ere, bertan erroak dituen edonork daukan lagun eta familiarte- koen sare zabala. Kanpotik etorrita, be- re talde soziala herri beretik etorritako- en taldea da gehienetan; talde txikia eta isolatua, maiz.

Eskolak badu zereginik taldeen ar- teko harremanak posible egiteko, ber- tan jaiotakoen eta etorri berrien artean zubiak eraikitzeko. Era berean, eskolak erantzukizun handia dauka horien se- me-alaben ikasketen arrakastan. Arlo horretan bere konpromisoa ezin daite- ke azalekoa izan.

Helburuok bete daitezen, gizartean

diren hizkuntzak menderatzea ezin- besteko da. Hizkuntza horiek, ordea, sozializazio horren ondorioa dira, ez baldintza.

## Hizkuntzen irakaskuntzan kontuan hartzeko alderdi batzuk

Gure eskolak badaki zer den etxe- ko hizkuntza ez den hizkuntza batean i(r)a kastea. Hainbat urtean erdaldu- n elebakarrak euskaldundu ditu murgil- tze ereduan (modelo de inmersión). Baina adituak aspalditik esaten ari dira egungo etorkin gehienetan azpira- tze ereduan (modelo de submersión) eskolatuta daudela; eta horren ondo- rioz, eskola porrota gerta daiteke. **Mur- giltze programen** berezitasuna, hain zuzen ere, gehiengoaren hizkuntzaz hitz egiten duten ikasleek beste hiz- kuntza batez ikastea da. **Azpiratze pro- grametan**, berriz, hizkuntza gutxitue- tako ikasleek gehiengoaren hizkun- tzaz ikasten dute: testuinguru horretan beste hizkuntza bat dakarren haurra- rentzat berea hizkuntza gutxitua da (inon lantzen ez dena, jatorrizko talde- tik kanpo baliorik ez duena...). Bere ja- torrizko herrialdean goi mailako esta- tusa duen hizkuntza baldin bada ere (arabiera, kasu), hemen hizkuntza gu- txitua da, gaztelania Amerikako Estatu Batuetan hizkuntza gutxitua den mo- duan.

Zenbait haur etorri berri (EAEn % 30, gutxi gorabehera) ez dira gaztela- niadunak eta irakasleak ez dauka haie- kin hitz egiteko komunikazio hizkun- tzarik: ez die ulertzen beren eleaz hitz egiten dutenean, eta hori, irakasleak ikaslearen hizkuntza ez ulertzea, azpi- ratze eredu bihurtzeko faktore nagusia da. Arazo hori edozein eredutan gerta- tzen da (A eredia izan, B, D...), eta bere zailtasuna areagotu egiten da etorri be- rria haur nagusia izanda eta, are gehia- go, berau ikasturtean zehar eskolatuz gero.

Orain arte ezagutu gabeko egoera horrek gure programak berriro azter- tze eskatzen digu. Murgiltze progra- metan asko ikasi dugu azken 30 urte- tan, baina aldi berean, hizkuntzen ikas-

**Orain arte ezagutu gabe-ko egoerak gure programak berriro aztertzeko eskatzen digu. Murgiltze programetan asko ikasi dugu azken 30 urteotan, baina aldi berean, hizkuntzen ikaskuntzari buruzko hainbat uste oker zabaldu dira gure artean.**

kuntzari buruz hainbat uste oker ere zabaldu dira gure artean. Eskolaren erronka nagusietako bat da hizkuntza(k), ondo ikasteko, modu eraginkorrean irakastea. Zer hartu kontuan? Nola bideratu irakaskuntza? Beharrezkoa dirudi hainbat alderdiri buruz hausnarketaren egitea eta orain arte ikasi duguna berrikustea.

### **Orain arte ikasi duguna**

Murgiltze ereduetan lan egin izanak asko irakatsi digu hizkuntzen irakaskuntzari buruz; ez gara, beraz, hutsetik abiatzen. Gogora ditzagun egiaztatutako hainbat printzipio:

**1.- Murgiltze ereduak frogatu dute bigarren hizkuntza bat ikasteko edukien bitarteko hezkuntza dela biderik eraginkorrena.** Hizkuntza eta edukiak integratu egin behar dira, bata bestearekin batera ikasten baita. Hizkuntzaren lanketa eta edukiena aldi berean gertatzen dira. Indartze saioetan ere, curriculum landuz, oinarrizko hiztegia, harremanetarako elementuak eta eskolarako behar diren eduki eta trebeziak ikasten dira. Hala ere, bien arteko oreka zaintzea komeni da, alegia, edukien aldetik ataza errazagoa den heinean, eskakizun handiagoko alderdi linguistikoak lantzea, eta alderantziz.

**2.- Hizkuntza elkarrekintzan ikasten da, besteekiko harremanetan. Haurrek horrela ikasten dute lehen**



**hizkuntza.** Alabaina, batzuetan beste gela batean kokatzen ditugu –indartze gelan / laguntza gelan / harrera gelan / errefortzu gelan...–, eta han denbora luzea igarotzen dute. Paradoxa handia da ikasle berriak jatorrizko hiztunengandik banantzea. Gogoratu behar da, gainera, faktore afektiboek garrantzi handia dutela hizkuntzen ikaskuntzan. Hizkuntza berriaz mintzatzen diren lagunak izateak ikasteko gogoia eta aukerak bultzatzen ditu.

**3.- Hizkuntza ikasteko interesa ez da berez sortzen eta, hortaz, ikasleengan hizkuntza ikasteko gogoia piztu behar da.** Zentzugabekeria, sinplekeria edo erronka kognitiborik eza, konexio falta... ikaskuntzaren etsaiak dira ikasle guztientzat eta, logikoki, asperdura besterik bideratzen ez duen eskolako hizkuntza bera ere ez da interesgarri bihurtzen.

Ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren kalitatea honako honekin dago lotuta: ezagutzak ikasleentzat zentzua izan behar du, eta haratago joateko haien interesa piztu behar du (zerbait aurkitu, zerbait konpondu, zerbait hobeki ulertu, eraiki, aldatu, norberaren irudia hobetu...).

**4.- Ama hizkuntzaren garrantzia azpimarratu behar da.** Eskolak haurren hizkuntza ez irakasteak gutxiespen soziala eta ikaslearen autoestimua galera ekar ditzake. Argi dago irakasleek ezin dituztela haurren hizkuntza guztiak ikasi eta irakatsi, baina neurriak jarri behar dira abian azpiratze ereduaren ondorio negatiboenei aurre egiteko. Ikasleen hizkuntzek presentzia izan behar dute eskolan eta irakasleak horretarako erak bilatu behar dituzte.

Haurren hizkuntzari estimua adierazi behar zaio: irakasleak hitz ba-

tzuk ikas ditzake, beste ikasleek ere berak dakien abestiren bat ikas eta kanta dezakete, haurren hizkuntzetan posterrak egin daitezke –ongi etorria emateko, zorientzeko, agurtzeko...–. Bestalde, lehen hizkuntzan duen gaitasuna garatzeak bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari biziki lagunduko dio. Familiari ere euren hizkuntza haurrekin erabiltzen jarraitzeko aholkatu behar zaio, ahalik eta modu aberasgarrienean. Beraz, posible zaien neurrian, seme-alabei beren hizkuntzaz irakurtzen eta idazten ere irakats diezaietela.

**5.- Haurren eta familiaren motibazioa sustatzea eskolaren erronka da.** Zenbait herri eta hiritan, kanpotik etorritakoek ez dute ulertuko beren haurrek zergatik ikasi behar duten kallean sarritan entzuten ez duten hizkuntza bat. Gizarte honetan euskara dela zenbait ateren giltza azaldu beharko zaie, alegia, herri honetan eta zentzu guztietan “bat gehiago” izan daitezen horrek duen garrantzia eta abantaila. Eskolak horiadierazteko ardura dauka, nahiz eta ardura ez den berea bakarrik.

Zentzu horretan, familiarekin batera lan egin behar izaten du eskolak, gurasoek haurri hizkuntza ikasten nola lagundu jakin dezaten. Beste alorretan bezala, hizkuntzaren arloan ere, eskolak familia “hezi” beharko du, haurren arrakastan laguntze aldera.

**6.- Ikaslearen hizkuntzaren ezaugarri nagusiak ezagutzeak irakasleari eta ikasleari ere lagun diezaietela.** Jakituria honek interesgarria dirudi ikaslearen oztopoei aurre egiteko eta, batez ere, jatorri desberdinetako haurrekin lan egiteko irakasleak beharrezkoa duen sentsibilitate linguistikoa areagotzeko. Adibidez, arabieraz hiru bokal daude, eta ez bost: horrek eragina du hiztun horiek bigarren hizkuntza bat ikasten dutenean. Izan ere, ama hizkuntza bakoitzak eragina izango du ikasleek ikasiko duten euskaran eta gazteleran, eta irakaslearen sentsibilitate eta jakituria linguistikoa lagunduko die haurren oztopo horiek identifikatzen eta aurrera pausoak eman ditzaten laguntzeko bideak bilatzen.

## Gure artean zabalduko zenbait uste okerri erantzuteko asmoz

Egiaztatutako printzipioekin batera hainbat ideia oker zabaldu dira hizkuntzen irakaskuntzari buruz.

**1.- Hizkuntzaren presentzia huttsak (“asko entzun”) ez dakar hizkuntza ikastea.** Entzutea eta ulertzea ez dira sinonimoak. Izan ere, ulertzea da hizkuntzak eta testuinguruak adierazten dituzten edukiak eta euren arteko harremanak prozesatzea, alde kognitiboki egiten duen lana, hain zuzen. Ulertzeko ikasleak erne egoteko jarrera behar du (beraz, interesa), jasotakoa (*input*) interpretatu eta prozesatu behar du, ezagutza berria jakinaren gainean eraikitzeko estrategiak garatu behar ditu, etab.

**Ez dira sinonimoak, halaber, asko entzutea eta hizkuntza horretan hitz egitea.** Gela tradizionalan ikasleek oso denbora gutxi daukate hitz egiteko, eta galdera itxiei eman behar diete erantzuna gehienetan. Entzunez ez da hitz egiten ikasten.

*Elkarren arteko diskurtsoa* da hizkuntza ikasteko testuingururik egokiena: elkarriketa, non partaide guztiek berbazko ekarpenak egiten dituzten, nahiz eta partaidetza asimetrikoa den eta alderdi gatazkatsuak izan daitezkeen. Horgertatzen diren negoziazio prozesuak lagungarriak dira ikaslearen-

tzat. Testuinguru horietan garrantzitsuenak jasotakoa edo *inputa* ulergarria izatea da, elkar ulertzeko. Jatorrizko hiztunak–irakasleak–ikaslearen ulermen eta partaidetza errazteko hainbat estrategia erabiltzen ditu, eta garrantzitsuenak hizkuntza eta elkarriketa moldaketak dira (errepikapena, birformulazioa, argitzeko eskakizuna, ulermenaren kontrola...). Tartean dauden beste hainbat faktorek ere (testuinguruan kokatzea, parte hartzeko benetako aukerak, konfiantza eta onespen giroa...) laguntzen diote ikasleari ulertzen eta hizkuntza berria gero eta hobeto erabiltzen.

Komeni da, beraz, irakasleak elkarrekintzarako aukerak eskaintzea ikasleei: irakaslearekin berarekin eta euren kideekin hitz egiteko aukera asko, eta askotarikoak. Hori egitea komeni da, kontua ez dela edozertaz hitz egitea ahaztu gabe; aitzitik, elkarrekintzaren ardatzak *ataza*–egiten ari dena– izan behar du. Eta noski, ataza horrek interesgarria izan behar du.

**2.- Komunikazioa ez da irakasleok zaindu behar dugun alderdi bakarra, ikasleak gero eta hobeto komunikatzen ikastea ere bada helburua.** Hizkuntza era egokian ikasteko eta ideiak koherenteki adierazi ahal izateko, gero eta zuzenago adierazten ikasitako behar du. Horretarako, hizkuntza erabiltzen den egoerari, edukiari eta formari buruzko hausnarketa bultzatu behar da



ikasleengan, baina hori egiteko ez dago zertan itxaron ikasleek hizkuntza ondo jakin arte. Elkarrekintza testuinguru ezin hobea da *feed-back* eskaintzeko: irakasleak eta ikasleek zenbait mekanismo eta estrategia erabil ditzakete beste hizkuntzetako ikasleengan akatsen eta formulazio arazoaren konzientzia sortzeko.

**3.- Adituek argi seinalaten dute hizkuntza menperatzeko ez dela nahikoa hurrek gaztelaniaz eta euskaraz oinarritzko trebetasunak lortzea, hau da, lagunartean “moldatzea”.** Oinarritzko maila horrek ez du esan nahi haurrak eskolako hizkuntza menderatzen duenik, ezta eskolako edukiak lantzeko eta ikasteko gai denik ere. Ez dugu ahaztu behar horretarako urteak behar direla eta eskolak lan sistematikoa egin behar duela ikasleek hizkuntza gaitasun hori lor dezaten.

Ez da ahaztu behar, bestalde, eskolak, euskaraz gain, gaztelaniaz ere irakatsi behar duela. Kasu batzuetan haurrek eskolara iristerako gaztelaniaz jakiteak ez du esan nahi erregistro guztietan moldatzen direnik. Erregistro informaletako gaztelaniaz hitz egiten badute ere, hizkera formala ere ikasi behar dute, euskararekin gertatzen den bezala, hori ere zenbait gizarte esparrutan beharrezkoa da-eta. Etxetik gaztelaniaz ez dakitenekin egin beharko da ahalegina bereziki, ahozko solas erregistroaz gain, ahozko erabilera formala eta erabilera idatzi guztiak ikasi behar izango baitituzte. Honetan, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz, asko irakurri beharko dute. Irakurketen kalitatea eta kantitatea funtsezkoak dira, eta bereziki, beroietan eskainiko zaizkien laguntzak.

**4.- Garrantzitsua da materialak adinari egokitutakoak izatea eta gelan landu behar duten curriculumarekin lotuta egotea.** Testuak errazegiak badira (hizkuntza eta edukiari dagozkionez) ez dute gatazka kognitiborik sortuko. Interesgarriak izateko ikasleak zerbait berria ulertzen edo sortzen ari dela sentitu behar du, oztoporen bat gainditzen duela.



Egokitutako materialekin kontuz ibili behar da; batzuetan hurrei euren adinarekin bat ez datozen edo trataera egokitu ez duten gaiak ematen zaizkie (adibidez, 12 urteko ikasle bati haurtxikien ipuinak ematea, edota azalpen eta ariketa sinpleegiak): jokabide horrek eragin gaiztoa izan dezake beraien ikaskizun eta garapenean, eta euren buruaren estimuan.

Materialek garrantzi handia duteenez, ondo begiratu behar zaie beroien alde ikonikoari eta alde linguistikoari, betiere, helburu bikoitzarekin; ikaslearen ulergarritasuna erraztea eta euren ahalmen intelektualak ez gutxiestea, alegia.


Zentzu honetan, maiz, ikasmaterialek egokitu egin beharko dira. Kontua ez da beroriek sinplifikatzea, baizik eta berriro lantzea: edukiak ondo uler daitezten, lan horrek askotan edukiak laburrago adieraztea eskatuko du, baina beste batzuetan luzeago adieraztea, edo beste era batez antolatzea. Testuak sinplifikatzen direnean, ordea, hizkuntza artifiziala sortzeko arriskua dago.

**5.- Ikasleak gure alfabetoan irakurtzen eta idazten ez badaki, ez dago zertan itxaron haurrak ahozko hizkuntzaren oinarriak jaso arte.** Kode idatzia irakasteko eta ikasteko prozesuak berak negoziatio handia behar du, eta ahozko hizkuntza ikasteko testuinguru ederra izan daiteke. Hala ere, ez da ahaztu behar:

a) kodea berez ez dela ezer, ez bada mezuak bideratzeko tresna;

b) idazketa kodea eduki interesgarriak bideratzen dituenean ikasten dela hobekien, bere funtzio sozialari estuki lotuta, hain zuzen;

c) hizkuntza idatziak eskatzen dituen ezagutzak –genero bakoitza eta berau idazteko antolamendua, hartzai-



le bakoitzaren trataerari dagozkion arau sozialak, hiztegia, sintaxia, ortografia, etab.–benetako funtzioetan erabiliz ikasten eta irakasten direla hobekien. Hau da, letren eta soinuaren arteko harremanak modu luzez irakasten ibili beharrean, bide interesgarriagoa izan daiteke, adibidez, ikaslearen eta ikaskideen izenetatik hastea, ohar txikiak, eskolako lehen ezagutzak eta bizitza sozialean erabiltzen diren oinarritzko testuak irakurtzen eta idazten ikastea; horrela, ikasleak lehen momentotik jakingo du ikasten ari den hizkuntza idatzia-rekin zerbait egiten.

### Amaitzeko...

Batek baino gehiagok pentsa dezake dokumentu honek ez duela gauza berri askorik proposatzen, eta hala da. Izan ere, hemen azaldutako printzipio didaktikoak hizkuntzen i(r)akuntzaren oinarriak dira, eta ikasle guztiekin dira baliagarriak. Etorकिनен seme-alaben kasuan, ezinbestekoak dira hauek eskola arrakasta lortzeko. ●

## Urteetan geure curriculumik gabe egon ondoren, orain proposamen bat baino gehiago ditugu. Zer bide hartu behar dugu eskoletan? Eta zer gertatuko da hizkuntz ereduen marko berriarekin?



### Hizkuntza ereduen porrota

Euskal curriculumaren inguruko eztabaida espezifikoa hau nondik eta zergatik datorren jakiteko, egin dezagun historiaurre labur bat. Aspalditxo –ez esateagatik 1982ko legeria aldarikatu zen garaitik bertatik-, Hezkuntzaren Sailean aurreikusitako xedeak ez zirela betetzen eta, EAEko arduradunek berrikuntza zenbait egiteko asmoari ekin zioten duela lau urte. Honela, Hezkuntza Kontseilaritzak abian jarri zuen adituena talde bat 2003an curriculumaren inguruan ekarpen teorikoak eta praktikoak egin zitzaizkion. Azterketa teorikoz arduratu zen taldean curriculumari buruzko bi ikuspegi kontrajarri ziren, batak curriculumaren “euskal dimentsioarena” –ordurarte indarrean zegoena-, eta bestea, errotat euskara hartuta, soilki “euskal curriculumarena”. Egun eztaba da hura bukatutzat ematen da, Ikastolen Konfederazioak bere txostenean, hasieran ez bezala, azken formulazio horri eutsi baitio. Baina maila batean bakarrik argitu da nahasketa terminologikoa hori, izenburuan “Euskal Herrirako curriculu-



**Paulo IZTUETA**

EHUKO IRAKASLEA

ma” eta “Euskal curriculum osoa eta integratzailea” daramaten txostenak agertzen baitira, hor sartuz euskararekin zerikusirik ez duten kontzeptu geografiko-juridiko eta linguistikoak. Beste taldea ikasleek euskara ezagutzaz datu estatistikoak jasotzeaz arduratu zen eta bere emaitzak ISEIk eman zituen ezagutzera 2005eko udaberrian. Neurketa horretarako oina-

rizko erreferentziatzen Europako Kontseiluak hizkuntzen gaitasunerako erabiltzen duena hartu zen, First Certificate-aren baliokidea den B2 maila, alegia, zailtasunaren aldetik maila ertainekoa dena. Emaitzak, eskasak: DBHko 4. mailako 1.191 ikasleri egindako proban, maila horretako ikasle guztietatik % 34k bakarrik gainditu zuen proba, eta horietatik % 27 D ereduak ziren. Datu larria hori da. Baina kontua ez da A ereduak ez duela euskalduntzen, berme hori eskaintzen duten bakarrak B ereduak % 7 eta D ereduak % 57.2 besterik ez direla baizik.

Ikastolen Konfederazioak egindako *Derrigorrezko eskolarako euskal curriculum*. Oinarrizko txostena izenekoa 2005ean argitaratu zen eta honek euskarazko irakaskuntzaren aldeko tradizioari eusten dioten hezkuntzako eragile zein elkarte gehienek babesa jaso zuen, hauen artean hezkuntza esparruko Sortzen-Ikasbatuaz eta Kristau Eskolarena, eta, batez ere, garai hartako Hezkuntza kontseilariarena. Aski da gogoratzea *Euskal curriculum*: *Kultur ibilbidea*. *Herritik*



*mundura eta mundutik herrira. Adituen ekarpena* (2004) liburuaren aurkezpenaren Hezkuntzako kontseilariak bere onarpen osoa eman ziola euskal curriculumaren ibilbide berriari. Gasteizko Hezkuntza Sailean kontseilari-buruak aldatu eta aski berehala, 2006an, Gaur Bihar-ek “Euskal Herrirako curriculumaren oinarriko ideiak. Eztabaidarako proposamena” deituriko txostena zabaldu zuen. Honek Euskal Eskola Publikoko eragile eta elkarleen ahotsa plazaratu zuen, Sarean, BiHe eta Gurasoen elkartekoen ikuspegiak jasoz.

Oro har, hezkuntza sektorean diharduten gizarte eragileen iritziak ordezkatzen dituzten bi txosten horietan Euskal Herriko hezkuntza sisteman aspaldidanik presente dauden bi mundu, bi sentsibilitate, bi bizipen bederen islatzen direla esan dezakegu, maila batean elkarren osagarri izan litezkeenak, edo beharko luke tenak, eta beste batean, aldiz, oraingo aski kontrajarrita ikusten ditugunak. Zuzirik gabeko bi ertz horiek erdararen eta euskararen mugak banatzen ditu.

Ikastolen Konfederazioaren eta Gaur Bihar-en bi txosten horien edukia “Euskal curriculumaz ohar kritiko batzuk eta zenbait gogoeta” lanean<sup>1</sup> zehaztasunez aztertzen baititugu, bakoitzaren gabeziak eta ekarpenak nabarmenduz, alfer-lana da han esanak hemen errepikatzea. Bien arteko desberdintasunak bat baino gehiago dira, baina nabarienak aipatu beharrez, bi hauek aipatuko nituzke, asko laburtzeak dakarren arrisku guztiarekin. Batek –Gaur Bihar-ek zehazki-, botere administratiboak ezarritako esparru geografikoa hartzen du abiapuntutzat, Euskal Herrialde lurralde historia kontuan izan gabe, nahiz aitortzen den, ezinbestez aitortu, Euskal Herriaren batasun historiko kultural eta linguistikoa eta, orobat, euskarak jasaten duen egoera minorizatua. Hizkuntza eskubideen mailan, giza eskubideen aldekoak bakarrik aipatzen dira, herri eskubideak isilduz, jakinda Nazio Batuetako Eskubide Zibil eta Politikoen itunean (1966), adibidez, horiek jasota dato-

zela. Bestalde, Euskal Herriko curriculumaz hitz egiten da, ez euskal curriculumaz. Izenburuaren formulazioak berak asko esan nahi du, Espainiako estatu ikuspegitik begiratuta burutu dela, alegia. Besteak –Ikastolen ikuspegitik egindakoak-, aldiz, Euskal Herri osorako planteamendua egiten du, curriculumaren erakuntzan lurralde batasuna zainduz eta haren edukietan oinarritzat euskara eta euskal kultura ezarritzat, nahiz eta ez den zehazten zertan datzan euskal kultura, ezta ulertzen ere nola ezkon litezkeen euskal kulturari buruzko Joxemiel Barandiaranen eta Ramon Zalloren ikuspegiak, hala ez badirudi ere, gaua eta eguna bezala baitira. Gure ustez maila teorikoan inkoherentziarik baduen arren, bera da, lehen esana berriro errepikatuz, EAEko Hezkuntza Sailera begira burutu diren txostenetan euskaldunena, euskal kulturagintzaren eta euskarazko irakaskuntzaren tradizioari gehien lotzen zaiona. Horregatik eusten dio curriculum honek “euskal” erroari. Eduki pedagogikoetan alde handirik ez da bien artean.

Eusko Jaurlaritzara aurkeztu diren bi txosten horiek beren defendatzaileak izan dituzte hezkuntza sektoreko elkarte, talde eta eragile desberdinen artean eta, testu alternatibo bati dagokion izaera ofizialaren zigilua ez badaramate ere, prentsako aldarrikapenetan garbi islatu dira arrazoi pedagogiko hutsak ez diren erakunde politiko-sindikalen jarrera eta interesak. Bi mundu esan dugu, baina agian, xehetasunetan sartuz gero, euskaltzale eta abertzaleen unibertsoan gehiago ere badaudelakoan gaude. Estatu-elkartekoen artean, orobat, euskararen mundutik urrunago edo gertuago daudenak ere bada dira. Joera bateko zein besteko adierazpen publikoak irakurri ezinik ez da komunikabideetan.

### **Txostenen kronika laburra**

Orain arte aipatuko txostenak eta prentsa adierazpenak hezkuntza sektoreko elkarte desberdinetatik landutako ekimenen ondorio izan dira, EAEko ardura-

**Gaur Bihar-en txostenak botere administratiboak ezarritako esparru geografikoa hartzen du abiapuntutzat. Besteak, Euskal Herri osorako planteamendua egiten du, curriculumaren erakuntzan lurralde batasuna zainduz eta haren edukietan oinarritzat euskara eta euskal kultura ezarritzat.**



dunentzat hezkuntza munduan alde batean zein bestean zer nolako pentsakerak dauden jakiteko baliagarriak izan direnak. Legerian oinarritutako hizkuntza ereduaren porrota agerian jartzen duten emaitzen aurrean, Hezkuntza Sailak, Tontxu Campos Kontseilaritzako buru izendatzearekin bateratsu, hezkuntza sistema berritzeko asmo zaharrari ekingo dio, marko berri hau jadanik bideratua zen euskal curriculumaren berrikuntza zabalaren barruan kokatuz. Honen xedea, irakaskuntzan hizkuntzen gutxieneko gaitasuna ziurtatzeko marko berria legez finkatzea da.

### **Eskola Kontseiluko adituen txostena**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, zehazki horko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, 2006ko irailaren 15eko datarekin, lan-taldea osatuko zutenei bidaltzeko txosten bat egin zuen “Ele biko irakastereduen azterketa. Hurrengo hilabeteetarako lan-gida” izenarekin. Adituei zuzendutako txosten horretan, 1. puntuan, Legebiltzarraren mandatuari aurrez aurre erantzun eta aztergaia behar bezala lantzeko, lau azterketa-bide abian jartzea eskatzen da, hau da, azterketa juri-

<sup>1</sup> Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez (arg.): *Ikuspegi soziokulturala Euskal Herriko hezkuntzan. I. Hezkuntzaren gaineko berbal-diak*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2006, 19-41.



## Katalunian eta Galizian bertako hizkuntzek bere gizarte estatusa ziurtatuta daukatenez, hizkuntzarena

ez da arazo politiko bihurtzen; Euskal Herrian bai, ordea, hemen euskalduntzeko proiektu nazionala egin orduko, deskalifikazio guztiak gainera etortzen baitira.

diko-legala, soziolinguistikoa, psikolinguistikoa-glottodidaktikoa eta operatiboa. Lau atalok behar-beharrezkotzat jotzen dira eta azterketa-bide bakoitzerako lantalde bana izatea proposatzen da. Lanak entregatzeko epea ere finkatua dator: 2006ko irailean bertan hasi eta 2007ko otsailaren bukaeran entregatu. Izendatuak 25 dira guztira, talde bakoitzean kanpoko aditu bat aurkitzen delarik.

Hortik ateratzen da euskaraz eta gaztelaniaz egina den adituen txostena: "Hizkuntza erduei buruzko Euskadiko Eskola Kontseiluaren akordioa", 9 orri bete-beteak dituena. Bukaeran dator entregaren data: "Bilbon, 2007ko otsailaren 1a".

### EAEko Parlamenturako txosten ofiziala

Adituek egindako txosten horretan oinarrituta, EAEko Hezkuntza Saileko Eskola Kontseiluak, "Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn. Proposamen berritzailea eta eleanitza XXI. menderako" txostena burutu zuen, Eusko Legebiltzarrean aurkezteko xedearekin egina, han, adostu eta gero, onartua izan dadin.

Txosten honetan, funtsean, adituen txostenean datozen ideiak jasotzen dira, baina ez guztiak, eta daudenak ez modu berean formulatuta.

### Marko berria, aterabidea ala lehengoa berrituta?

Txostenaren edukia orokorrean har-

tuta, berritzailetzat autodefinitzen bada ere, planteamendu erreformista baten traza guztiak ditu.

Ebaluaketa puntuala eta autonomia zabala esaten da, bainaneurri horiek ez dira batere berriak. Egoera aldatzeko, zer-bait gehiago behar da.

Helburu aitortuen zehaztasunean bai, baina baliabideen mailan egiazki loteslea izan daitekeen neurri berririk ez da proposatzen, orain arte egiten ez denik, ezer kualitatiboki desberdinik, alegia.

Bestalde, irakaskuntzako profesionalak irakasleak izaki, horiek zein graziaren poderioz bihurtuko dira gauek goizera aldaketa erraldoi hau egiazkoa egingo lukeen dohainen jabe?

Eskolak, berritzaileena izanda ere, ezin du ikasleek beren gizarte jatorritik dakarten hizkuntza defizita gaintitu.

Hizkuntzen arteko gizarteko eta giza-banako harremanetan ez dago ordenik. Egiazki ematen dena da tradizio historiko luzea duen gatazka egoeran dauden fenomenoek, boteretik eragindako hizkuntza politika asimilazionistaren ondorioz, menpeko hizkuntza minorizatua ezinbesteko ordezkapen prozesuan sartzen dutela, gero eta barrurago. Eta horrek ez du erremediorik, nola eta marko honek proposatzen duen bide erreformatzailea behingoz gaintitu eta, ez den sortzen beste marko alternatibo bat, erresistentziazko indarrak bilduz eta biharko gizarte euskalduna herri mugimenduetatik abiatuz.

Errealismoaren izenean mintzatzen den ikuspegi pragmatista eta faktualista honek indarrean dagoen gizarte desoreka betikotzea du helburu, nahiz eta azaleko berrikuntza batzuk egitera behartua dagoen.

Txostena lantzeko prozedurak piramidala dirudi, hezkuntza esparruko eragile eta elkarte guztien ahotsa jaso eta ordezkatzeko duena, baina testuak ez du hori erakusten. Ez arrazoi akademiko- pedagogiko edo linguistiko-ondorio garbi eta naturala, baizik interes politiko eta ideologikoen gainean eraikitazeko akordio adostuaren emaitza dela usteu du.

### Aterabide ezina?

Espainiako Legeriaren arabera, be-

rez, irakaskuntza euskaraz emateko oztoporik ez legoke, eta horren frogar da eredu hori indarrean dagoela Katalunia eta Galizian. Zergatik ez du planteamendu hori aurrikusi eta landu EAEko Hezkuntza Sailak? Haien balio baldin badu, zergatik ez guretzat?

Eskola Kontseiluaren txostenetan ez da inon esaten ez balio dezakeenik, ezta ez dezakeenik ere, aipatu ere ez baita egiten. Eta pentsatzen jarrita pentsa daiteke, ez dela aipatzen, esparru juridiko-legalaz jardutean aurreratu bezala, berrikuntza guztia EAEko Legeriak jadanik ezarria daukanaren barruan egiteko agindua emana zegoelako. Eta ezarria daukana, hain zuzen, hizkuntzen eredia da. Marko berriak abiapuntutik bertatik dakar ezinaren zama eta osolitekeena da, helmugarako hasperenetan, bide erdian geratzea. Denbora lekuko.

Zer dela eta, EAEko Hezkuntza Sailak adituen taldeari horrelako aurre-baldintza juridikoa? Ezkutuko asmoen frogar idatzirik ez denean, erantzuna ezin izan erabatekoa. Baliteke azalpenaren giltza euskal gizarteko klase politiko-sindikala daltzaleak -gutxiengo batek-, eragiten duen gizarte-presioan egotea, batez ere, hor, erdaldun elebarkarrek ez baitute elebidun edo eleaniztun ez izateko inolako arrazoirik eta bai, alderantziz, nahi izateko. Hipotesi honen argitan, Hezkuntza Sailak bilatu nahi izan duen akordioa ez da izan hezkuntza-sektoreko egile eta eragile guztien, nola erdaldunen hala euskaldunen arteko adostasunaren emaitza, botere-guneko ordezkariak paktatutako-arena baino.

Katalunia eta Galizian bertako hizkuntzek bere gizarte-estatusa ziurtatuta daukatenez, hizkuntzarena ez da arazo politiko bihurtzen; Euskal Herrian bai, ordea, hemen euskalduntzeko proiektu nazionala egin orduko, deskalifikazio guztiak gainera etortzen baitira, irrealismotik hasi eta politizazio-asmo ilunetaraino doazenak. ●

*Obarra: espazio muga dela-eta, testua ez du gu osorik argitaratu hemen. [www.bikbasi.com](http://www.bikbasi.com) web atarian daukazue oso-osorik, 'Dokumentu interesgarriak' atalean, "Marko berria, aterabide ezina?" izenburuarekin.*

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.  
Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

ekaina

berriak

# Uda giroan euskarazko ikastaroak egiteko aukera anitz

Urtero bezala, udako lehen egunak iritsiko dira eta Euskal Herriko hainbat puntutan euskarazko ikastaro askotarikoak egiteko aukera izango da. Hik Hasi udako topaketa pedagogikoak Donostian antolatu ohi ditu, baina euskarazko ikastaroen geografia are zabala goa da.

UEUk uztailean zehar ikastaro anitz antolatu ditu Eibarren, Baionan eta Iruñean, data desberdinetan. Gaiak ere askotarikoak izango dira: natur zientziak, genero gaiak, psikologia, literatura, historia, artea, kazetaritza, bertso-gintza, osasuna, antzerkia, soziolinguistika, nazioarteko gaiak, musika eta abar. Beraz, aukera zabala izango da aurten goan ere 30 ikastaroren artean. Audio film baten eraketa, feminismoaren ibilbideak, apikultura, bitartekaritza familiarrean hastapaenak, kultur ondarea-

ren azterketa, ipuinen mekanika, aeronautikara hurbilketa, drogak, hizkuntza plangintza edota Oteiza, izpi-rituaren (ha)rian... izango dira ikastaroetako batzuk, besteak beste. Lizarran ere hainbat hitzaldi antolatuko dira.

Euskal Herriko Unibertsitateak ere hainbat udako ikastaroren aukera eskaini du eta hauek izango dira euskaraz egin ahal izango direnak: heriotza eta nahigabearen trataera irakaskuntzan, ebaluazioaren oraina eta geroa hezkuntzan, oinarriko hezkuntza konpetentziak, hizkuntzen ebaluazioa eskolan ikuspegi komunikatiboaren baitan, Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narraitibaren testuinguruan, emozioak Atxagarekin eta disgrafiaren diagnostikorako tresnak eta berreziketarako programak.

Ikastaroen informazio gehiago lortzeko eta matrikulatu nahi izanez gero, jo ondorengo helbideetara:

\* UEUren udako ikastaroetarako: <http://ikastaroak.ueu.org/>

\* EHUren uda ikastaroetarako: <http://www.sc.ehu.es/scrwwwsu/index.htm>

\* HIKHASIren udako topaketa pedagogikoetarako: <http://www.hikhasi.com/topaketak>



## Euskal egutegi propioa izateko eskubidea

Ikasturte amaiera baino lehen Euskal Herriko ikastetxe bakoitzak datoren ikasturteko egutegia zehazteari ekingo dio, dagozkion eskola egunak eta eskola orduak euren modura antolatzeko. Egutegietan festa egunek zeresan handia ematen dute. Izan ere, Hego Euskal Herrian estatu espainiarraren festak ospatzen dira eta Ipar Euskal Herrian estatu frantziarrarenak. Horren harira, EHBek gaiaren inguruan eztabaida sortzeko eta euskal hezkuntzaren egutegi propioaren eskubidearen alde, dinamika soziala piztu nahi izan du azken urteetan egiten ari den bezala. “Egutegi batek herri baten nortasunaren adierazle diren ikurrak goraiatzan ditu eta horren arabera jarduna bul-

tzatzen du”. Hego Euskal Herriko ikastetxeetan, adibidez, guardia zibilaren eguna (urriak 12) edota konstituzio espainiarraren eguna (abendua 6) ospatzera behartzen gaituztela dio eragileak edota estatu frantziarrean, halaber, frantziar errepublikaren eguna (uztailak 14). Hori dela eta, EHBren iritziz, “Euskal Herriak eskubidea du hezkuntza ere egutegi propio baten alde jarduteko”.

Aurten, ikastetxe orotara eskutitzak bidali dira egutegi propioa sortzeko proposamenarekin eta oraindik ezin da jakin zenbat ikastetxek egingo duten euren euskal egutegia. Printzipioz EHBek abenduan 6an ateak ofizialki irekitzeari eman dio lehentasuna. Dena dela, ikastetxe bakoitzaren aukera eta

nahien arabera, batzuek urriaren 12a ere sartu dute eskakizunen artean. Ipar Euskal Herrian, ostera, uztailak 14a proposatu da lehentasun data gisa. Ikastetxe bakoitzean, egutegia onartzeko lehenik proposamena egon behar da, ondoren organu gorenarekin adostu behar da eta azkenik tokiko hezkuntza administrazioarekin negoziatu behar da. Aipatu behar da, datuen arabera 2005. urtean Euskal Herrian 12 ikastetxe ireki zirela ofizialki abenduaren 6an.

EHBren ustez, “ez da beraien lana Euskal Herriko egutegi proposamen bat egitea, baizik eta Euskal Egutegi baten aldeko dinamika soziala piztea, beharra mahaigaineratzea”.

# VIII. hik hasi Udako Topaketak

## Hainbat ikastarotan izena emateko aukera oraindik

Uztailaren 3, 4 eta 5ean Donostian egingo diren VIII. hik hasi Udako Topaketen eskaintza oso zabala izan da aurten goan ere.

Kontu handiz ibili gara ikastaroak eskaintzeko orduan, EAEn eta Nafarroan oposaketa deialdiak eginak baitaude. Horregatik, ikastaro gutxiago antolatu ditugu, guztira 31. Eta erantzuna guk uste baino hobea izan da. Izan ere, izena emateko epea amaitzean 500etik gora baitzeuden.



### Zein ikastarotan eman daiteke oraindik izena?

Matrikulazio epea amaitu bada ere, ikastaro batzuek ez dute kopuru mugaturik edota mugatutako batzuetan oraindik bada lekurik. Beraz, horietan izena eman daiteke. Zein dira?

- 1.- Euskal kultura
- 2.- Ahozkotasuna
- 3.- Bigarren hizkuntza
- 6.- Harreman afektiboa
- 11.- Coaching
- 13.- Publisher
- 14.- Power Point
- 16.- Irudien manipulazioa
- 20.- Ordenagailua musikan
- 29.- Birziklatuz sortu
- 30.- Autismoa
- 31.- Reggio Emilia

### Arratsaldeetan saio irekiak

#### Uztailak 3, asteartea

##### \* Argitaletxeen eguna

Argitaletxeek dituzten eskaintza berrien aurkezpenak egiteko aukera

egongo da. Horien proposamenak ezaugaraziko ditugu hik hasiren web atarian.

#### Uztailak 4, asteazkena

##### \* Proposamenen eguna

Ikastetxeetan hainbat gairi buruz egiten ari diren proiektuak aurkezteko aukera egongo da. Norbaitek interesik badu, jar dadila gurekin harremanetan.

Informazio eguneratua jasotzeko [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web ataria zuen eskura duzue.



# Irakasleen profila XXI. mendeko Euskal Herrian monografikoa jadanik kalean da



*“Gaur egungo eskoletan, XXI. mendean bizitzeko ikasleak prestatu behar ditugu, XX. mendean prestatutako irakasleekin eta XIX. mendeko egitura duen hezkuntza sisteman” esaldia errepikatu zen “Irakasleen profila XXI. mendeko Euskal Herrian” jardunaldi-mintegia. Hausnarketa sakona egin beharra dago herri ikuspegitik, bizkuntza eta kultura ikuspegitik eta ikuspuntu pedagogikotik.*

2006ko abenduaren 15ean, Donostian *Irakasleen profila XXI. mendeko Euskal Herrian* jardunaldi-mintegiak

antolatu genituen HIK HASI eta Irakasle Eskolek, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Irakasle Eskoletako irakasleak biltzeko xedez. Horiez gain, ikasleak, Pedagogia fakultatetako irakasleak eta hezkuntza erakundeetako pertsonak bildu ziren jardunaldi-mintegian.

XXI. mendeko aldaketa sozialak eta Euskal Herriaren erronkak kontuan hartuz, irakaslearen profilaren izaeraren inguruan mintzatu ziren solaskideak. Hark emandakoa biltzen du monografiko honek.

Bere prezio arrunta 5 euro da eta harpidedunentzat 3 euro. Liburuxka eskuratu nahi izanez gero, jo ezazu [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) helbidera edota deitu 943 371 408 telefono zenbakira.

## Aperribai eskola Europako Comenius 1.1. proiektu hoberenen artean saritua izan da

“Atzoko jolasak, gaurko jolasak” proiektua Europako 11 proiektu hoberenen artean sailkatu dute Comenius 1.1. programaren baitan. Proiektua, beste herrialdeekin harremana izatean, ikasleen arteko komunikazioa sustatzean, marrazkiak, txartelak, eskutitzak eta abar trukatzean oinarritzen da.

Proiektuarekin 2004-2005 ikasturtean hasi zen Galdakaoko Aperribai eskola, Europako beste lau zentzorekin batera: Almada (Portugal), Taranto (Italia), Trakovice (Eslovakia) eta Gdansk (Polonia) hirietako zentzorekin. Lehenengo ikasturtean, herri bakoitzeko informazioa trukatu zuten besteen herriak ezagutu eta, aldi berean, Euskal Herria ezagutarazteko. Hura egiten lortutako informazioarekin eta materialarekin, “Europako Txokoa” sortu zuten eskolan. “Ikasturte berean hiru liburuxka ere egin genituen; bat Galdakao herriari buruz, beste bat Aperribai eskola-

ri buruz eta hirugarrena haurren jostailuei buruzkoa. Azken horretan, ikasle bakoitzak bere jostailurik gustukoena aurkezten zuen eta zergatia azaldu” dio Manoli Garcia proiektuaren koordinatzaileak. “Hiru liburuxka horiek euskaraz eta ingelesez eginda zeuden elkarren artean trukatzeko eta beste eskoletako haurrek ulertzeko”.

2005-2006 ikasturtean, antzinako jolasei buruzko erakusketa antolatu zuten Aperribai ikastetxeok eta arrakasta handia izan zuen ikasle eta gurasoen artean. “Era berean, haurrek jostailuak egin zituzten birziklatutako materialak profitatuz eta oso interesgarria izan zen beraientzat. Aukera posible asko zeudela ikusi zuten, eta hala, sormena izugarri landu zuten”.

Bestalde, Euskal Herriko jolasak (patio jolasak) eta abestiak elkartu eta DVD batean grabatu zituzten. Orain, 2006-2007 ikasturtean, ikasle parte-



hartzaileak txotxongiloak egiten ari dira material birziklatuarekin eta beste eskoletara txotxongilo bana bidali dute. “Bigarren hiru hilabetean antzerki lanak prestatu ditugu euskaraz eta ingelesez eta hori grabatuz beste DVD bat sortu dugu”.

Lan horregatik guztiagatik, Europar Batasunak Comenius 1.1. proiektuan “Toys of yesterday, toys of today” aukuratu zuen eta “Success Stories” argitalpenean agertuko da. Gainera, maiatzean Berlinen izan dira proiektua Europar Batasuneko batzarrean aurkezten.

www.hikhasi.com


W e b a t a r i b e r r i t u a

Proiektuak partekatu  
Arakatu

“klik”

“klik”

# argitalpenak



## Munduari itzulia 18 ipuinetan

Antton Irusta  
ELKAR


Liburu hau 18 ipuinez osatua dago, baina ez soilik ipuinez. Mundu osoko 18 lurraldetako neska-mutilak ezagutzeko aukera ere ematen du. Non eta nola bizi diren esango digute, eta bakoitzak ipuin bat kontatu. 18 haur, 18 lurralde eta 18 ipuin. Ipuin bakoitza bere marrazkiaz osatu du Enrique Morente ilustratzaileak •



## Fisika jostagarri

Eduardo de Campos  
ELHUYAR

Eduardo de Campos Valadares brasildarra fisikan doktorea da eta orain dela urte batzuk *Fisica mais que divertida* liburua argitaratu zuen bere herrialdean. Fisika dibulgatzeko liburu erabilgarria dela ikusirik, orain Elhuyarrek euskaraz argitaratu berri du. 100 esperimentu baino gehiago jasotzen ditu, bost ataletan banaturik •



## Pol eta Val

Josetxo Orueta  
PAMIELA

Nerabeak eta umorea dira eleberri honen osagai garrantzitsuenak. "Kontuz: ez erakutsi liburu hau gurasoei" hitzekin hasten da eta egilean esanetan ez da politikoki oso zuzena. Baina, hiru gazteen abenturen kontakizun freskoak "zenbait gazteen irakurzaletasuna bultzatzen lagun dezake". Joxean Sagastizabalek itzuli du •



## Hezitzaileek asko egin dezakete

TTAKUN EUSKARA ELKARTEA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Lasarteko-Oriako Ttakun euskara elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailak elkarlanean argitaratu dute honakoa. Hiru liburuxkaz osatzen den sorta da eta eskola ordur kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko proiektuaren prozesua azaltzen da. Gida, tresnak eta adibideak ere eskaintzen ditu •



## Bat Soziolinguistika aldikaria 62. zenbakia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Azken ale hau helduen euskalduntze-alfabetatzearen inguruko dossierra da. Bertan gaiaren inguruan hainbat puntu jorratzen dira: ikuspegi teorikoa, hastapenak, euskaltegien mapa, egungo egoeraren azterketa, ikerketa akademikoa, ikuspuntu pedagogikoa... Hainbat egileren testuz eta ekarpenez osatzen da •



## Furia

Patxi Zubizarreta  
EREIN

Karlosen aita zalduna da eta Grand National lasterketan parte hartzekoa da. Ama etxean dago, semearekin arduratuta: hara non jakin duen semearen lagunik onena telebista dela! Baina, halako batean, argia joan eta badirudi dena amaitu dela, batez ere telebistatik ez dagoelako! Eskerrak Karlosek uste-kabe bat jasoko duen, eta akaso... •



# ... goza nazazu gehiago

## Hiztun neurketak: adierazle eta akuilu



**Helena BARAIBAR eta  
Kristina BOAN**

Gipuzkoako Euskaraz Bizi koordinatzaileak  
Ikastolen Konfederazioa

Iritsi gara ikasturtearen azken hondarretara. Luze zirudienak eman du berea. Garaitsu honetan ematen diogun ez erreparratu bat egindako bideari, eta aldi berean egiten dugun baita, datorrenari buruzko lehen aurreikuspena ere, beharrezko irizten diogu kezkatzen gaituen hizkuntzaren erabilerak zein bilakaera izan duen ezagutzeari.

Asko dira ikasturtean zehar abian jartze ditugun ekimenak, zenbateraino eragiten dugu baina, horien bitartez haur eta gazteen hizkuntz portaeran? Hiztun neurketarik egin ezean, ezinezkoa izango dugu erantzutea. Hizkuntza Normalkuntzako plangintzaren eraginkortasuna ezin izango dugu neurtu aurrez ezarritako ebaluazio adierazle zenbait izan ezean.

Gaurkoan hiztun neurketak hartuko ditugu gure esku-hartzearen adierazle kuantitatibotzat. Modu jakin eta helburu zehatzez eta aldi berean erregularitasunez

burututako neurketek baino, ez digute balioko gure helburua lortzeko, hots: normal-kuntza plangintza abian jarritakoan zein erabilera genuen eta horrek urtez urte zein bilakaera izan duen zehaztasunez jakitea.

Hiztun neurketak modu diferentz egin litezke, bada ordea, edozein neurketa burutu aurretik aintzat hartzea komeni zaigun zenbait alde: ikasleak harreman librean ari direnean duten jokamoldea arakatazea (irakaslearen eraginpean ez direnean), eurak ez jakitun izatea, neurketak oharkabean burutzea, alegia, neurgarria den unibertsoaren erdia behintzat neurtzea eta neurketa horiek erregulariki egitea urtean bitan edo, eta urtez urte. Eta zalantzarik gabe, urtez urteko batz bestekoen erregistro zehatza eramatea. Beste zenbait alderdi, neurketa burutzen dutenen helburu zehatzen arabera, aldakorak izan daitezke: neurtuko diren guneak (sarrera-irteerak, jolasaldiak, eskola orduz kanpoko kirolak,...), adin tarteak nola zehaztu (urteka, zikloka, etapaka), neska-mutilen arteko bereizketa egitea,...

Hiztun kontaketa egiteko moduari buruz zehaztasun handirik emateko tarterik ez dugu hemen baina, labur bada ere, esan dezagun bi modu orokor badirela. Bata elkarriketa kopuruak zenbatzea, zehaztuz zenbat neska eta zenbat mutil ari diren euskaraz eta gaztelaniaz eta bestea hiztun kopuruak soilik biltzea, genero bereizketarik egin gabe.

Hiztun kontaketa hauek unibertso osoan ez ezik, talde kualitatiboki bereziagoetan ere egin litezke. Demagun, lagun talde-

ka egiten ditugula, kasu honetan datu bilketa zaildu egiten zaigu baina emaitzei eman dakiekeen erabilgarritasuna areagotu. Esku-hartzea bera ere zehatzagoa ahalbidetzen baitigu.

Dena den, hiztun neurketak mintzagramak eginaz ere burutu litezke. Teknika honek baditu bere alde-contrak. Norberak aukeratzan duenez norekin (gelako, lagun taldeko,...) egiten duen nagusiki gaztelaniaz eta norekin nagusiki euskaraz datuak ez dira objektiboak, baina jasotzen dugun informaziotik euskal/erdal hiztun aktiboak/pasiboak nor diren ezagutzeko aukera ematen digu eta baita hiztun isolatuak ere. Era honetara, mintzagrama aplikatu dugun talde horrekiko esku-hartze anitzak bidera ditzakegu euren arteko harreman sarea zer-nola egituratuta dagoen ezagutzeko parada ematen baitigu eta konpromiso esanguratsuak harrarazteko bidea jorratzen lagun diezaguke.

Bukatzeke, aipa dezagun hiztun neurketak egite hutsak ez duela errealitate linguistikorik aldatzen. Honenbestez, dugun erabilera erreala ezagutzen laguntzen digu eta garatzen dugun plangintzaren eraginkortasuna neurtzen. Horretaz gainera, beste etekinen bat ere atera dakieke: ikasleen (irakasleen arteko eskola esparruko harreman librean ere bide beretik neur litezke!) artean ezagutaraziz hausnarketak bideratzeko aitzakia polita izan ohi dira eta baita konpromisoak hartzeko abiapuntua ere. Beti ere, hurrengo ikasturteko lan ildoak zein izan litekeen finkatzen lagunduko digu.

# atzeko atetik



**Joseba SARRIONAINDIA**

IDAZLEA

Urduña, 1950.

Egia esan, txirrinak jo orduko jartzen ginen ateari begira. Txirrinak noiz joko zain ematen genituen azken minutuak, maisuari kasurik egin gabe, liburuak eta koadernoak bilduta, erlojuari so egin eta pupitreen artean zutik, korrika abiatzeko prest.

-Hemendik ez da inor altxatuko harik eta txirrinak jo arte! –esan zuen maisuak, bezperako irten-behar eta arrapaladagatik oso haserre.

Ateari begira geratu ginen. Baina txirrinak ez zuen funtzionatu egun hartan eta bertan geratu ginen. Eguraldi

## Obedientzia

hotz, ilun eta edergarririk gabea egiten zuen.

Ordua pasatu zen eta ez genuen txirrina entzun. Kanpora joateko gogoia genuen, baina ez ginen jaikitzen ausartu, eta harri isiltasunez geratu ginen zain luzaroan, bakoitza bere ikasmahaian, ateari eta leihoari begira. Txirrina apurtuko zen, beharbada. Obedientzia zentzua barruan genuen. Maisuak Filosofia lezioa azaltzen jarraitu zuen, harik eta boza laztu zitzaion arte.

Maisuak isildu zenean ere ez ginen irten, eta hala luzatu zen klasea egunetan, astetan, hilabetetan, urtetan. Maisuak burua lantzean behin altxatu eta, bere nekaduratik, Filosofia lezio zatiren bat azaltzen zuen. Guk ez genion jaramonik egiten, baina han egoten ginen, koadernoak besapean, pupitreen kontra jarriarik, gure erloju zaharrei giltza ematen.

Txirrina apurtu bazen, ez dute egundo konpondu, memoriaren sakonean galdu zaigu haren soinua, umeta-

ko sasoi lausoan. Hogeita hamazazpi urte pasatu dira eta hementxe gaude oraindik, ateari begira, txirrinak noiz joko duen zain. Maisua hil da, baina ez da entzun txirrinik.

Ia ez dugu solasik egiten gure artean, mututasun triste hori urratuz gero hatz erakusleak ikusiko ditu ezpaintedan, isiltzeko agintzen. Ulertezina da baina, hainbeste denbora elkarrekin pasatu arren, ez dugu bata bestearen konfiantzarik irabazi.

-Uste duzu egundo amaituko dela klase hau? –galdetu diot Edurneri ahapeka.

Bera ere luzetsirik dago, ilea urdin du zaio. Jadanik atsoa da, baina umezalantza igartzen zaio zoritxar handiaren aurrean.

-Ez dakit–dio Edurnek.

Hatz erakusleak ezpainetan, isiltzeko agintzen. Antzinako kutsua du denak ikasgela itxian, isiltasunak areagotzen duena eta maisuaren hezurdurak. ●



**15 eta 17 urte arteko 218 milioi haur eta nerabe lanean ari dira munduan. 123 milioik, gainera, lan arriskutsuak dituzte.**

Iturria: Lanerako Nazioarteko Erakundea

# hh

hik hasi

# udako topaketak



2007ko uda




**Donostian**  
Uztailak 3, 4 eta 5

**www.hikhasi.com**  
943 371 048

Goizez  
9:00 - 14:00  
Arratsaldez  
16:00 - 18:30

Euskal Herritik...



...Suomira

## Finlandiako hezkuntza sistema eta eskolak ezagutzeko bidaia pedagogikoa

- \* Urriak 31, Bilbo-Helsinki
- \* Azaroak 4, Helsinki-Bilbo
- \* Hiru hezkuntza zentrotara bisitak eta hitzaldiak
- \* Matrikula eta informazioa:  
[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)  
943 371 408



hh  
hik hasi